

Zorioneko, zorion eta Larramendi: Filologia ala hil II^{1,2} Zorioneko, zorion and Larramendi: Philology or death II

Joseba A. Lakarra*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: *Zorion* (happiness) and *zorioneko* (happy) are words which were thought up, made up, given a new meaning and, above all —directly and indirectly— spread by Larramendi, with a few clear appearances at the beginning of his trilingual dictionary and alongside and parallel to numerous testimonies of *fortuna*, *ditxa*, *felizitate* and their derivatives in the centuries up to that time and even thereafter. Significant evidence of Larramendi's determination and work can be found in the dictionary and his other texts, including the Assumption Sermon of 1740, the Burgos Doctrine and the rest.

¹ Egitasmoak: Ministeritzaren «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) eta EJren «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-2).

Eskerrak zor dizkiet Julen Manterolari, Iñigo Ruiz Arzalluzi eta Eneko Zuloagari aurreko bertsio baten irakurketa arretatsarengatik eta, bereziki, Blanca Urgelli lehen nahiz gero eman bere laguntzagatik eta egindako ohar baliotsuengatik; esan gabe doa lankide eta adiskide horietariko inork ez duela gera litezkeen akats eta okerren errurik.

Lan honen laburpen bat argitaratu da gaztelaniaz *FLVn* Irulegiko Eskuari buruz prestatu monografi-koan (Lakarra 2023b). Nirearen irizkide eta osagarri eder dira hor agertzen diren Zuloaga eta Ariztimuñoren (2023) eta Manterola eta Mounoleren (2023) lanak, baita liburu honetan bertan ageri den Manterola- renaren (2023) zati handi bat ere.

² Laburdurak: AndS = Agustin Leitzakoaren Omenezko Andoingo sermoia (1763); AS = Asuntzioko sermoia (1740), AzkS = Azkoitiko sermoia (1737) [= Lakarra 1985b], BurDot = Burgosko do- trina (1747), EKC = *Euskal Klasikoan Corpusa*, HH = *Hiztegi Hirukoitza* (1745), KS = Kontzepzioko ser- moia, MendSG = Mendibururi egin Sarrera-gutuna (1747); OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*, SAgS = San Agustinen sermoia (1750).

Lren testuetarako Altuna & Lakarra (1990) darabilgu, baina SAgSrako baita Kaltzakortaren edizio kritikoa ere (2018), hor ezarritako formak hurbilago baitira Lren originalekoetatik edo haren kopiarik zaharrenetakoetarik; AS berriaz ikus Lakarra (2023a).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Joseba A. Lakarra. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – joseba.lakarra@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-2014-2025

Nola aipatu / How to cite: Lakarra, Joseba A. (2023). «Zorioneko, zorion eta Larramendi: Filologia ala hil II», *ASJU*, 57 (1-2), 583-611. (https://doi.org/10.1387/asju.25985).

Jasoa/Received: 2023-09-01; Onartua/Accepted: 2023-11-17.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

As Larramendi's testimonies demonstrate, in the space of a century words written in Basque —especially in the Southern Basque Country and then to a lesser extent in the North— came to occupy a very wide area, several places in which more than one could run the risk of being considered eternal; the texts, however, assure a very different story. In the appendices at the end (§§ 7.1-7.3), using what we know about diachronic morphology, textual evidence and the history of the lexicalisation of the above-mentioned loanwords, we emphasise the scant plausibility of the proto-historical antiquity of *zorioneko* and *zorion*, by including several particular facts and considerations.

KEYWORDS: *zorioneko*; *zorion*; lexicalisation; testimonies; Larramendi; older loanwords.

LABURPENA: *Zorion eta zorioneko Larramendik asmatu, eratu, edo adiera berriz hornitu eta, batez ere, —zuzenean eta zeharka— zabaldutako hitzak dira, Hiztegi Hirukoitzaren aitizineko age-rraldi garbirik gabe eta ordura arteko eta are ondoko hainbat mendetako fortuna, ditxa, felizitate eta beren eratorrien lekukotasun ugariren aldamen edo bazterrean. Larramendiren borondate eta lan horren erakusgarri nabarmenak aurkitzen dira HHn eta haren gainerako testuetan, tartean 1740ko Asuntzioko Sermoian, Burgosko Dotrinan eta enparauetan.*

Larramendi ondoko lekukotasunek erakusten dutenez, mende bateko tartean euskara idatzian —berziki Hegoan eta gero apalago Iparraldean— hitzok hedadura erraldoia hartu zuten, hainbat non bat baino gehiago horiek betidanikotzat jotzeko arriskuan eror litekeen; testuek, ordea, oso bestelako historiaren berme ditugu. Akabuko isatsetan (§§ 7.1-7.3) morfologia diakronikoaren, testu-lekukotasunen nahiz aipatu maileguen lexikalizazioaren historiez dakigunaz baliaturik, zorioneko-ren eta zorion-en zahartasun protohistorikoaren egiantz urria markatzen dugu, hainbat datu eta gogoeta gogoangarri bilduaz.

HITZ GAKOAK: *zorioneko*; *zorion*; *lexikalizazioa*; *lekukotasunak*; *Larramendi*; *mailegu zaharragoak*.

1. Sarrera

Ariketa sail honetako aurrekoan (Lakarra 2022a) AEZekotzat edo betidanikotzat ohi genuen *jatorri* famatua 1745 baino lehentxeago eratu HHrako lanetan ziharduen garaian asmatu eta bere 1737ko Azkoitiko Sermoian eta beste zenbait lekutan —Asuntziokoan (Loiola 1740, cf. Lakarra 2023a) eta HHko sarreran [1742], haren gorputzean baino lehen— emandako Larramendiren hitza zela erakutsi genuen eta horren atzerantzko eratorri *jator* are mende bat berankorragoa oraindik. Ikusirik Hualde doktoreari harako jolas edo joko filologiko hura guztiz desatsegin ez zitzaiola gertatu, erabaki nuen bere ohoretan paraturiko bilduma honetarako beste antzeko ale bat prestatzea, berriro ere Larramendik (ez Tubalek) eskainitako berbaren baten eta bere familiaren inguruko gogoeta eta zehaztasun zenbait bilduaz. Aurreko lan horretan bezala, orain ere testuak ohi baino modu eraginkorragoan ezagutu eta lillura zabaldugeietarik urrundu beharra aldarrikatu nahi dugu, eraikuntza historikoen oinarrian hondar hutsa beharrean historikoki hizkuntzak izan dituen benetako bilakabideak gogotan izanik. Itxaron dezagun oraingo honek aurrekoaren antzeko harrera izatea gure adiskide eta lankide omenduaren partetik.

Arestian, euskaldun eta erdaldun orori, bertoko nahiz urrutietako eta are itsasoz bestaldekoiei ere jakinarazi zaie Irulegiko esku zahar berrian agertzen den SORIONEKU (edo agian SORIONEKE³) egungo euskarazko *zorioneko*-ren antzeko, pareko eta *beraz* baliokide dela eta, uste horretan funtsatuaz —gehi suposatuaz gainerako lerroetako hitzak

³ Orain irakurketa hau hobesten dute Gorrochategui eta Velazak (2023). Zuzena hori balitz ere, munta handikoa da argitzea bat baino gehiago nola iritsi den SORIONEKU eta eusk. *zorioneko* berdintzera eta berdintasun hain ahularen gainean ondorio erantsiak ateratzera edo eraikitzera.

ere hizkuntza berean idatziak diratekeela—, aldarrikatu da euskarak izan zezakeen sarbiderik ederrena izan zuela idazkeraren munduan duela 2.100 urte.

Resulta llamativo el gran parecido existente entre la primera palabra del texto, *sorioneku*, y el vocablo vasco *zorioneko* «de buena fortuna, de buen agüero», forma de flexión derivación de la serie *zori* «fortuna» + (*h*)*on* «bueno» que, si no fuera por el evidente simbolismo del soporte y por el lugar del hallazgo —el corazón del territorio vascón— cabría ser tomado por azarosa coincidencia formal. No cabe dudar de la antigüedad de ambas palabras en el léxico vasco; *incluso la unión de los elementos se documenta en los primeros textos vascos* (Agirre-Mauleon 2022: 67; etzana geurea [JAL]).

Desde el punto de vista formal la pieza tiene un escrito en caracteres paleohispánicos y en lengua vasconica. Constituye el primer documento indudablemente escrito en lengua vasconica [...] La primera palabra, que es *sorioneku*, tiene una lectura y una interpretación clarísima, inmediata desde la lengua vasca. Es verdad que las restantes palabras del texto no son tan inmediatamente comprensibles. Hay que establecer hipótesis, pero es evidente que desde la primera línea no cabe duda de la lengua en la que está escrita el texto. ([J. Velaza] in Agirre-Mauleon (arg.), 2022: 88)

Pozaren pozez ezin kabituz edo, euskaltzale eta zaletu askok ez du astirik hartu —beharbada horren beharrik ere ez zelakoan iragarpen arrandiatsuren ondoren— lehen ditugun hitzaren benetako lekukotasunetara jo eta haietan *zorionez* eta *zorionekoz* ikas genezakeenez jabetzeko. Ez bide da hau, alajaina, erabaki artatsu, zuzen-zuzena, ezta inongo makurrik gabea ere euskal testuei zor zaien begirunearen aldetik (ik. Lakarra 1997, 2018): nolabait esan, –80tik +1545era artean euskal hizkuntzaren inguruko lekukotasun gutxi aurkitzea da maizenik espero duguna (protohistoriako zehaztasun txikitxoan multzo handitxoaren garrantzia erraldoia alde batera utzirik). Baina oraingoan hutsunea ustekabea —ez hainbeste euskal lexikoaren hasi-masiak dazagutzanarentzat— ohi baino luzeago egiten da, bi mende luzeago egin ere, Etxepareren *Hasi-kinen* ondotik. Hots, harako Irulegiko ***zorioneko* hura ez soilik 1.600 (–80 / +1545), baina 1.800 urtez (–80 / +1745) ahantzia izan ote zen, bada? Horrenbestez, nahiz txinatar esaerak dioenez zuhurrak ilargirantz eskua luzatzen duenean ergelak hatzari so egiten omen dion, nahiago izan dugu —bongo-bongoaren aurkako sendabelarrei zeharbidez heldu beharrean (eusko-iberismoaz ik. de Hoz 2011, Lakarra 2013 eta orain Zuloaga & Ariztimuño 2023)— Alexandriatik bederen datorkigun praktikara jaitsi eta inori ez biderik eman ilargiaren aitzakian hatza begian sartzeko; bestalde, lekukotasunei ahal bezain ozen mintzatzen utzi diegu ustekizunak eta zaratak isil daitezten.

Zorioneko eta *zorion* sortu eta zabaldu baino lehen (eta gero ere neurri on batean) oso hedatuak ziren *ditxa*, *felizitate*, *dohain* eta *fortuna*-ren eratorriak ditugu aipagai sarrera honen ondotik (§ 2); segidan (§ 3n) *HH* eta *Lren* beraren testuetako usadioa aurkezten dugu eta (§ 4n) *zorion*-ez aritzen. § 5en Larramendiren hiztegi eta testuen lekukotasuna iruzkintzen dugu —§ 5.1 *Artea* (1729), § 5.2 *HH*, § 5.3 1740ko Asuntzioko Sermoa eta § 5.5 Gainerako testuak, § 5.4n tarte bat eginik Xurioren *Imitazioe*arekiko zorraz— eta § 6an artean ikusitako funtsezkoena laburbiltzen dugu. Ez dugu amaitu nahi izan, halere, § 7n zenbait isats gehitu gabe, dela (§7.1) *zorioneko*-ren lekukotasun garrantzitsu batzuen pisuaz (edo pisu faltaz, hobe), dela (§7.2) *zorioneko* eta *-ko* atzizkiaren jatorriaz, dela azkenik (§7.3) horren eta *zorion*-en bidez —literatura hizkuntzan— ordezkatu ziren aipatu maileguen lexikalizazioaren lekukotasun eta inplikazioez.

2. Zorioneko aurrekoak

2.1. Ditxa, felizitate eta fortunatik zorionekora

Lehen mendeetako euskal corpusean *felizitate/felizidade*, *ditxa/titxa* eta *fortuna/portuna* eta beren eratorriak dira hedaturik egungo egunean *zorionek* betetzen duen alor semantikoan: *felizitate/felizidade* dute Leizarragak, Tartasek, Elizaldeek eta XVIII. mendeko beste testu goinafar batek, eta *ditxa* (*titxa* gutxiagok, baina tartean Axularrek) Etxeparek, Lazarragak, Beriainek, Etxeberri Ziburukok, Oihenartek, Belapeirek, Mendiburuk, Kardaberatzek, Olaetxeak, Gerrikok, Iztuetak eta gainerako hainbatek ere oraindik horien ondoren. Azkenik, *fortunaz OEHL* dioskunez: «Documentado en todas las épocas y dialectos, si bien su uso es escaso en el s. xx, sobre todo al Sur» (*portuna* aldaerarekin Mogel, fr. Bartolome eta enparauko gutxi batzutan, bidenabar).

Orobat, komeni bide da gogoratzea *zorioneko*-k garai haietan inola ere betetzen ez zuen alor semantikoa bestek egiten zuela aise: *ditxoso* aurkitzen dugu lehen testuetarik Araba, Bizkaia zein Nafarroan 1745 b.l. (baita Lapurdin Etxeberri Ziburukogan ere, honek *titxos* ere badakar, halaber) eta data horren ondotik oso arrunta dateke orobat Hegoalde osoan XVIII. eta XIX. mendeetan, gaur arte:

Ditxoso ni lako amoradua. Lazarraga (B), 1193vb. *Badabere, ditxoso tenporea, ditxoso begiak, ditxoso oñak, / ditxoso burua, ditxoso soñak*. Ib. (B), 1193vb. *Birjinea izandu zan / Kristoren zerua, / aren sabel ditxosoa / da Paradisua*. CancVizc 369. *Berriak ain ditxosoak eta onak*. Ber Trat 53r. *Gu, titxosak, giaudezek urrezko kadiretan*. EZ Man I 29. *Josephe ditxosoa, amaren esposoa*. Acto 372. *O begi ditxoso, zeruko edertasunak ikusi bear dituzutenak!* Cb Eg II 146. *Nazaret deritzan erri ditxosotik*. Ib. III 325. *Ditxosua ni, zuei gusto emon al baneizu*. Mg PAb 198. *Ditxoso izan uste / genduben orduban, / orrikari gelditu / gerade munduban*. FrantzesB I 146. *Inozenzijako estadu ditxosuan*. fB Ic I14. *Ditxoso izan uste / genduben orduban*. Echag 22. *Ongi izatea mundu untan eta berzean ditxosoak izateko esperanza*. CatB 84. *Orain gelditzen gera / guziz ditxosuak, / irten geradelako / bitoriosuak*. Bil 33. *Txit egun ditxosua / Degu Eguberri*. Balad 196. *Ditxosua da fede onian / aitzen dana errezuau*. Mendaro Tx 126. *Zeruko jardiñaren / Loraren artian / Egon biariko degu / Egunen batian / Zein egun izango ote da / Egun ditxoso ori?* (In Iz ArOñ 127).⁴

Fortunatu arruntago da testu herrikoi eta berankorragoetan:

Fortunatu balira / Ezpatak gerrian / Elkar onditzen [= garbitzen] zuten / Kolera gorrian. Bordel 170. *Okasiyo bat emen izan da / juan dan aurreko urtian, / ni ere bistan fortunatuba, / nerau ez nitzan partian*. PE 56. *An fortunatu zaigu / Gaintzako kondia, / bi aldetara beiak / saltaka juan dia*. Ud 100. *Zazpi senide aita batenak / egotia emen triste / fortunatu da desgrazi batez, / bañan ez genduan uste*. Tx B I 132. *Portunatu da oien etxetik / dama gazte bat juatia*. Ib. 259.⁵

⁴ *Ditxaren* gainean eraturako *ditxazko* ere bada G aldean: *O zeñ ditxazkoa orduko penitenzia!* Cb Eg II 148. *Azpeitiko Erri noble ditxazko onetan*. Cb Eg III 356. *Egun ditxazkoa alderatu zanean*. Cb Just 57. *Ditxazko gizon / zerade Simon / nork lukean zure eguna*. Balad 239. GNn are *feliz* ere lekukotzen da; *Egungo egun misterioso eta feliz*. (AN, s. XVIII). ASJU 1993, 306. *Ditxadun/titxadun*-ek, aldiz, ez du bi hiztegitileren (Añibarroren eta Harrieten) lekukotasun bana baizik *OEHL*ren arabera. *Ditxagabe* antonimoaz ikus § 4, 18. oharrean.

⁵ Egia esan, Blanca Urgellek gogoratu didanez, *fortunatu* hauek guztiek ez dute 'zorioneko' esanahirik, 'gertatu' edo 'suertatu' baizik; halere, beren formagatik eta familia osatzeagatik hemen biltzea erabaki dut.

Ez dira *fortunoso* eta *fortunosa*-ren agerraldiak ere falta:

O, ladrón fortunoso, zein laster arrapatu zuén paraisoa! LE Ong 57r. *Nai izan zázu ta fortunoso zána: guziá itzulikodá zure oneráko.* Ib. 73v. *Alborotatu eta galerak / eman ditu itxasuak, / ango mariñel gizaraxuak / etzeuden portunosuak.* Arrantz 76. *Ni ez naiz fortunoso / mundura jayua.* Ud 100. *Bordegaraien alabak / ai ze andra fortunusak.* Balad 61.

Azkenik, *bienabenturatu* (eta aldaerak) ditugu, nagusi ez ezik, bakar ere dotrinetan:

Bienabenturatuak zeruan izanen dutela bizitze bat gorputzean eta ariman ain ona eta kontentu anditakoa eze izanen baitute nai duten guzia. Ber Doc 126v. *Aingeruek eta bienabenturatu guziek.* Ib. 129r. *Bienabenturaduak dira justiziaren egarria eta gosea daukeenak, zerren aek aseko dira.* Cap 19. *An egozan Santuak egin zirean Bienabenturadu, da urtenik, joan zirean Iesusagaz Zerura.* Zubia 151. *Bienabenturaduak Jaungoikoa ekusiaz eta amatuaz.* OA 41. *San Pedro eta San Paulo apostolu bienabenturatueri.* El 18. *Zeruko bienabenturaduak.* Urqz 29. *O zure zori oneko ta bienabenturadua, San Arseniok eriotzan bere buruari esaten zion!* Cb Eg III 216. [Aingeruek] *dire espiritu bienabenturetuek zuek dode-nak zeruen Jangoikuen gozaten.* CatUt 59. *Espiritu zorioneko doatsu eta bienabenturadu batzuek.* Gco I 466. *Zeruan dauden zorionekoak edo bienabenturaduak.* Ib. 416. *Ni bekataria konfesatzen natzaio Yaungoiko guziz poderosoari, Bienabenturatu Maria beti Birjinari, Bienabenturatu San Miguel/Aingiruari.* CatB 12s. *Espiritu Bienabenturatuak.* Ib. 39. *Bienabenturatu dulziak eta umildiak, zeren ek gozaten baitein lurra.* Hual Mt 5, 4 (Lç, He, SalabBN, Dv, Leon, TB, Ip, Ur, Or *do(h)atsu*, Echn, IBK zorioneko, Ker zoriontsu). *Bienabenturatuak padezitzen dienak persegimentu justiziaren gatik edo izateagatik justo.* Samper Mt 5, 10. *Bienabenturado dra bakezkuak, zeren urak deitruk izanen baidra Jangeikuaren aur.* CatR 69. *Espaniako gizon noble bi / bienabenturadubak, / aspaldiyan ondo dakitela / zer gusto duben zerubak.* Ud 141. *Goiko Erreinuan izan gaitezen / bienabenturadubak.* Ib. 147. [Aingeruek] *dire espiritu bienabenturatuak.* CatUlz 26. *Zeruen bienabenturetuek iten duten bezala.* Ib. 23. *Leen, Bienabenturaduak asko ziran munduan, baiña orain gutxitu egin dira.* And AUzta 47.v. tbn. CatAe 34. CatSal 69. *Bienabenturadu: Oe 51. Iraz 23. Ta Santa Tekla Birjiña, ta Martiri bienabenturada.* Cb Eg III 272.⁶

Zorion-ekikoak geroratuaz (ik. § 4) *zorionekori* dagokionez, askoz urriagoak dira *OEHk* hartaz dakarzkigunak *ditxoso*, *fortunoso* eta *bienabenturatu*-rekikoak baino: «Iparraldean soilik Harizmendi [161 *Ama zori onekoa*],⁷ *MarII* (1838), Duvoisin, Mirande, Xalbador eta Larre. Hegoaldean «usukoago bizkaitarren» diosku, soil-soilik, kronologiari arreta handiegirik eman gabe, bidenabar.

Zorioneko-ren urritasuna are markagarriago dateke iruzkin horrek premiazko dituen zenbait hobekuntza jasoz geroz: hasteko, 1745 b.l. Iparraldean Harizmendiren (1658) bakana lekukotzen omen da behin,⁸ eta ez bizkaitarrik ez enparaukorik

⁶ Halaber «bienaventuranza»-ren ordaintzat: *Miserabliak sokorritzeko / orrek baditu moduak, / noizbait ederki ikasiya da / bienabenturaduak.* Tx B II 140. Ohar bitez Gco eta besteren *bienabenturatu edo zorioneko* bikoteak. §2.2n gogoratzen denez, *dohatsu* ere soilik 1745 ondoren hasten da agertzen Hegoaldean.

⁷ Ez da ahaztekoa Harizmendi ez dela ageri Lk aipatu *HH* osatzeko erabili liburuen zerrendan, ezta Urgellek bere tesian (2000: 928hh) finkatu iturri ezagunen artean ere eta, beraz, honako honetan ezin esango litzateke beste askotan legez Larramendik Iparraldean ikasitako hitz bat Hegoaldean zabaldu duenik. Bestalde, *EKCK* Xurioren *zorioneko* bat ematen du, baina analisi faltsua da (benetan *zorion* da): cf. *Iduriz gure bakekotz eta zorionekotz* (lix kap.).

⁸ Baina ikus § 7.1 horren azterketa zehatzagorako. Bidenabar, ez dugu hemen Vinsonez geroztik konpontzeke dirauten Harizmendiren testuaren arazoez aritzeko aukerarik, komenigarri ez eze beha-

ez dugu bistaratzen Hegoaldean 1745ko data ezin saihestuzko horren aurretik. Gero, Iparraldean ia 200 urteko eten luzea dugu —oraingoz Harizmendiren hori ontzat hartuko bagenu ere—, berriro 1838an agertu arte eta seguruenik —zalantza gutxi da horretaz batarekin zein bestearekin— Hegoaldeko tradizioari (alegia, zuzenean edo zeharka Larramendiri) lotuak diren Duvoisin eta gainerakoen apurrak iritsi arte.⁹

Hots, euskararen garai historikoak hartuaz (cf. Lakarra 1997 eta Gorrotxategi, Igar-tua & Lakarra 2018) ez dugu *zorioneko* bakar bat ez Euskara Arkaikoan (1400-1600) Ipar nahiz Hego, zalantzarri bakar bat (ik. §7.1) Euskara Zahar eta Klasikoan Iparraldean eta hori ere ez Hegoaldean, 2 egile eta dozena bat kasu Iparraldean Lehen Euskara Modernoan gehi beste horrenbeste Bigarren Euskara Modernoan. Aldiz, 1745 ondoko Hegoaldean Burgosko Dotrinan (1747; ik. Altuna 1982; Lakarra 1986, 1987) aurkitzen ditugu lehen *zorionekoak*¹⁰ eta gero Larramendiren STomasen oitotzean,¹¹ harena izan litekeen KSn (cf. Lakarra prestatzen-a), Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos, Lizarraga Elkanoa, Añibarro, Mogel, Gerriko, Agirre Asteasukoa, Lardizabal... nor den orok darabil idatziz, baita horrelakorik tokatzen ez zitzaion Egjategik ere (*zorihun* zegokion zuberotar gisa). Horrenbestez, EKÇk dakarrenez, gutxienez 428 aldiz lekukotua dugu 1800erako eta beste 210etan 1850 bitartean (638 behintzat guztira 1750-1850 tarterako) mende soil baten tartean *zorioneko*-ren mundua erabat aldatu zelarik:

1750-1800		1800-1850	
Mendiburu	252	Añibarro	051
Kardaberatz	075	Zabala	043
Mogel	058	J. J. Mogel	031
Larramendi	011 ¹¹	Iztueta	028
Olaetxea	009	Laudioko Dotr.	010
Ubillos	006	P. Astarloa	009
Lizarraga	006	Etxagarai	008
Peñaflorida	001	Iturriaga	005
		B. Mogel	004
		J.B.Agirre	003
		J.K. Etxeberria	001

rezko ere litzatekeen arren; bitartean ikus ohar bat edo beste § 7.1en. Oso litekeena da aurki berri onak izatea gai honetaz, Xabier Etxagibelek amaituak eta amaitzear dituen lanen ondoren Harizmendiren inprimatuaz eta eskuizkribuez.

⁹ Cf. Lakarra 2023a-ko zenbait kasu (Duv *batasun*, *beartasun*, *berritasun*, *egiztatu*, *eskualde*, *illuntasun*, *mundutar*, *oarmen*, *obiezbezelako*, *zorion*; Mirande *egiztatu*, *oarmen*, *sarrera*) eta lehenago (2022a)-n *jatorriz* (bataren zein bestearen lekukotasunak; Duvoisinez ikus lehenago Urgell 2018: 634). § 7.1en bada zehaztasun gehiago *Marll*-i buruz ere.

¹⁰ Ezaguna denez, dotrina honetan Mendibururen originalari Larramendik hainbat zuzenketa eta gehiketa egin zizkion eta horiek onartu eta bildu ondoko bertsioa argitaratu zen; ik. § 3, non markatzen den Lren eskuak erantsiak direla originaleko *doatsuac*-ei gehitu horko *zorioneko* ugariak.

¹¹ Telletxeak argitaratu zuen (1975) Madrilgo Historiaren Akademiako Artxibutik, datarik zehaztu gabe, ordea.

¹² Ikus § 4.5en zehaztasun gehiago, tartean EKÇk bildu gabeko Larramendiren testuren bat.

2.2. *Dohatsu*

Zorionekoren eta bera hedatu baino lehen (eta gero) ziren eta diren dagoeneko aipatu mailegu sinonimo edo ordainen historia ez litzateke inolaz ere osoa *dohatsu*-z ezer esan gabe utziko bagenu. Gainerako haiek ere partez Iparralde eta Hegoaldean zabaldutako ikusi ditugun arren, hara zer dugun hor nagusi Leizarragaz geroz bederen, gaur bertara arte:

Dohatsu dirade spirituz paubreak: zeren haién baita zeruetako resumá. Lç Mt 5, 3 (Echn, IBk e Ibe zorionekoak, Samper, Hual bienabenturatu, Ker zoriontsuak). *Gauza dohatsuagoa dela emaita ezen ez hartzea.* Lç Act 20, 35. *Hala ere dohatsu dela nork baituke grazia.* EZ Man I 53. *Zeure iainkozko zuhurzia eta argi dohatsua bitarteko emanik.* Harb 88. *Ezta konzientzia simplea, plauna eta malizia gabea baiño gauza dohatsuagorik.* Ax 447 (V 292). *Dohatsua, zeinetarik, / Zeinen beso bietarik / Urkaturik egon baita / Sekuru ororen garhaita.* «Beata» (*Vexilla regis*). O Po 66. *Horra zein bizitze doatsu daraman gizon bark.* SP Imit I 22, 2. *Arabia doatsuari* [«Arabia Felix», Yemen] *hurbiltzen zitzaiola.* SP Phil 478. *Tromentak gloria lituzkek, / Dohatsu, dohakabeak; / Suak eder, nigarrak gozo, / Bozkario doloreak.* Gç 181. *Paradiusia, non dohatsiek jinkoa den bezala ikhusiren, maithatüren eta gozatiüren baitie.* Bp I 39. *Munduan ezteela hain zortha dohatsurik nola noble sortzea.* ES 106. *Oi noiz ethorriko da horen dohatsu, oren hanbat desiratu hur bezala.* CatBurg 23. *Emadazü mündü huntarik jalkite dohatsü bat.* Mst III 57, 4. *Zeruan Jangoikoa gozetan dagozan Espiritu Doatsu batzuk.* Cb CatV 37 (CatLuz 17 dohatsu, Legaz 23 doatsu). *Zeruko bide dohatsua.* Lg I 198. *Dohatsü dira bihotza xabü dütenak.* CatLan 42. *Lurrean bizi diran Erregeak baiño doatsuagoak dirala Zeruan bizi diran Santuak.* Ub 155s. *Arima doatsuak* (301). LE-Ir. *Gure funts-gabea, / Enganio tristea, / Baldin uste badugu / Munduan izan dohatsu!* Monho 142.a. Ch III 34, 3. *Dagigula Jainkoaren borondatea lurrean gaudenok, doatsuak zeruan*

1800 artekoak baino ez ditut ematen luze jo eta alperriko bailitzateke *OEH*ko guztiak —*in extenso* eman beharrean zifra hutsean aurkezten dituztenak soilik balira ere— hona ekartzeak. Edozein iruzkin baino lehen, hiztegi horretako «De empleo general, aunque está escasamente documentado en textos vizcaínos» zeharo zuzendu edo zehaztu beharra agertzen zaigu: 1745 baino lehen soilik Iparraldean agertzen zaigu, ez Bizkaian, ez Gipuzkoan, ez Araban, ez Nafarroa Garaian eta Hegoalde osoan —*HH*ko «beato, glorioso, bienaventurado»z landa— Larramendiren bi testutan (Burgosko Dotrinan eta San Tomasen otoitzean), geroago datozkeen Kardaberratz, Ubillos, Añibarro, Agirre Asteasuko eta enparauen aurretik.

Dohatsu ere etimologikoki oinarri mailegatu baten gainean (errom. *done*) eratutako alomorfo modernoko (-*tsu*, ez -*zu*) atzizkidun hitza dugu,¹³ baina bere hedadurak eta ugaritasunak bertakotuagoa eta, apika, aurrekoak baino zaharrago egiten dute ekialdean.

Hegoaldean 1745 ondoren erabiltzen hasten denez, beste hainbatetan bezala ere Larramendiren hartzekoetan sailkatu beharko dugu (cf. Lakarra 1985a), hots, bere Ipar > Hego zubilanaren (orokorrago, dialekto guztietako hitz egokiak EH osora zabaltzeko asmo eta lan erraldoiaren) zordun; hara kide gehiago baduen Hiztegiko pasarte adierazgarria:

Estas diferencias y las que están en el Arte, hacen principalmente este dialecto [lapurtera] y no digo nada de los nombres y verbos porque estos deben hacerse comunes a todos los dialectos, como lo procuro en el Diccionario. (*HH* xxviii)

¹³ Ordea, ez zuzenean: *dohain*, *OEH*ko dioen legez, hasieran trisilaboa zatekeen Zren azentuerak erakutsi bezala; beharbada **dohe* + **enin/egin* batetik?

3. *HH*, Larramendi eta haren testuak

Aldaketa markagarri eta ezin harrigarriagoa —*zorioneko* bakar eta eztabaidagarri bakana (ik § 7.1) xvii. mendean Iparraldean eta fisik ere ez 1745 arteko Hegoaldean izatetik, hemen bertan 1745 ondoko mende bakarrean ehundaka adibidera igarotzea— oraingoan ere Larramendiri zor zaio, zalantzarik gabe.

Hara *HH*ko lekukotasunak:

- «Afortunado, *zori onecoa, patu onecoa, doatsua*. Lat. Fortunatus, a, um; felix, cis»,
- «Afortunado más, *zori obecoa, patu obecoa, doatsuagoa*»,
- «Afortunado demasiado, *zori oneguicoa, patu oneguicoa, doatsueguia*»,
- «Beato, *doatsua, zorionecoa*. Lat. Beatus»,
- «Bienandante, *zorioneco, patuonecoa, doatsua*. Lat. Felix, fortunatus»,
- «Bienhadado, *patuonecoa, zorionecoa*. Lat. Fortunatus»,
- «Dichoso, *dichosoa, doatsua, doaintia, zorionecoa*. Lat. Felix»,
- «Dichosamente, *dichosquiro, doairo, doainquiro, zorionean*. Lat. Feliciter»,
- «Feliz, *doatsua, doaitia, zorionecoa, patuonecoa*. Lat. Foelix»,
- «Felizmente, *doatsujui, doatsuro, zoriongui, zoriondó*. Lat. Feliciter»,
- «Próspero, *doatsua, zori onecoa, patu onecoa*. Lat. Prosper, fecundus, felix»,
- «Prosperar, *doatsutu, doatsu eguin, aberastu, patu onecoa, zori onecoa eguin*. Lat. Prosperare»,
- «Prosperado, *doatsutua &c.* Lat. Prosperatus».

Erants bekie aurrekoei «*zorionecoa*, dichoso, feliz, bienhadado» eusk-gazt. hiztegian.¹⁴

§ 2.2 atalean ikusitakoarekin bat, Larramendiren testuetan *zorioneko HH*ko sarretan *zorionen* sinonimo gisa agertzen den *dohairen* eratorriarekin (*doatsu*) konbinatzen da: San Kasimiroren otoitz datagabeen «Esazu begi doatsu, Virgíña *zorionecoa*» (non *doatsu* = *zorionecoa*), Andoaingo Sermoian «Zorioneco guizona ninzala ni esango luque munduac», «ceruán duén doatsutásuna eta beti *zorionecó*a izátea» (*doatsutásuna* = *zorionecoa* izátea), eta hor bertan «cerren séculaco doatsú eguín dezutén, ta *zorionecó* sántuen lagún (*doatsu* = *zorionecoa*).

Burgosko Dotrinan (1747) hainbat aldiz (8tik 8tan) agertzen da *zorioneko*, dotrinako beste hainbeste 'bienaventurado' itzultzen dituen hitz hori.¹⁵ Testu horretan B eskuak [Larramendik] egindako oharrek ikusiaz errazki antzeman genezake hark gehituak direla 44.7-8 «doatsutasunac *edo zorionac*» nahiz orri bereko hainbat «Doa-

¹⁴ P. Altuna editorearen iritziz *HH*ren bihurteta M-ra inolaz ere ez eta gehienez ere aurreneko bospasei hizkien azpian diren hitzetara baino ez zen iritsi (cf. Altuna 1967: 143), baina azterketa askoz zehatzagoa beharrezko litzateke B. Urgellek (2000: 10-13) proposatu bidetik [eskuineko erdarazko ordainetan oinarrituaz, funtsean]. Lakarra (1992: 300en) hurbilketa ez hain garatuaren bidez oraindik ere mantentzen litekeela deritzodan ondoriora iritsi ginen: «Ikus daitekeenez azken hitzak erdara-euskara hiztegian *des*-ekin hasten diren sarretakoak dira gehienez ere. Saio berau egin dut [Hiztegitik] gainerako letra guztiakin ere eta ez dut kontrakorik eriden. Hortik aurrerako erdal itzulpenak (*e*-, *f*- edo beste has-tan direnak) sarrera horietan ziren (usu azalpen edo eratorri gisa) eta ez dioskute L aurrerago joan zenik bihurteta lanotan». Beraz, testuan aipatu hiruretarik «bienhadado» dugu *zorioneko*-ren ordain seguru bakarra.

¹⁵ Bidebar, *edo bienaventuratu*-rik gabe, hitz garbi berria inolako zalantzarik gabe finkatua balitz bezala. Horiakin batera eta esku berak gehituak ditugu *doatsutasunac edo zorionac* (2tan) eta *zoriona ta gloria* esanguratsuak ere (cf. § 5.5)

tsuac»i erantsi *zorionecoac*, eta esku berarenak dira hurrengo orrialdeko bi sailetariko gehiketak (cf. Lakarra 1986: 587 eta Altuna 1982an Mendibururen eskuizkribuez).

Larramendiren erabilera eta bere eragina testuingururik behinenean jartzeko on da *OEHN bienabenturatu/bienabenturadu*-ri so arin bat ematea (§ 2): Beriainek, Kapanak, Zubiak, Otxoak, Elizalde, Urkizuk —Larramendi aurretik otoitz hori duten Hegoaldeko dotrina guztiek— dakartzate hitz horren aldaera bata edo bestearen agerraldi ugari eta Larramendiren ondotik baita Kardaberatzek ere —nahiz honek bere obra erraldoian 75 *zorioneko* ere izan *EKC*ren arabera—; geroago, *bienabenturatu* Utergako dotrinak nahiz Gerrikok edo Baztango dotrinak (1826), Hualde Mayok (Ebangelioan zein dotrinan), Samperrek eta are Ultzamako dotrinak (1906), Larramendiren eraginetik urruti guztiak ere (cf. Sarasola 1986). Kardaberatzen *Santa Tekla Birjina eta Martiri bienaventurada* mozio erromantzeduna maileguaren erro zabalena lekuko dugu.

Azkenik, Larramendirena izan litekeen Kontzepzioko Sermoian ere (cf. Lakarra prestatzen-a) badira zenbait *zorioneko*: *Zori oneco egoera onetan Jangoicoac eman cien aen obediencia probatceco mandamentu erraz bat* (2), *berac eta beren ondorengo guciac beti zorionecoac izango cirala* (2), *Maria guztiz garbi eta zori onecoa* (4).¹⁶

Zorioneko-ri buruzko informazioa ez litzateke osoa haren kide *zorionezko* aipatuko ez bagenu: «Más frecuente al Norte. Al Sur solo se documenta a partir del XIX» diosku *OEHK*. *EKC*aren arabera EtzZib (*Elizara* (3) [*Noelak* eta *Manuala* (0)]), *Pouv. Philotea* (1) eta Haraneder (3) eta Xurio (2) 1750 arte, eta Larregi (11) eta Baratzart (2) 1800 bitartean. Gero Duhaldek 7 eta Añibarrok eta Zabalak bana dute XIX.aren lehen zatian. Soilik 1850-1900 bitartean hazten da hitzaren erabilera, Lapeire, Daskonagerre, Arbelbide, Goihetxe, Lapitz eta, batez ere, Duvoisinen bitartez (honetaz ikus § 7ko oharra).

Hauetarik guztietarik Larramendirentzako iturri seguru edo inspirazio egiantzeko bakarra Xurio litzateke, izatekotan:

- Nork ezaduka bere burua dohatsu momentu *zorionezko* hartan? Bere gogara dabilla graziak darabillana eta ez da mirakullu ez bazaitzu deus pisu iduritzen, Jainko guziz podoroak sustengatzen eta gidatzen gaituenean (IX. k)
- Ala *zorionezkoa* baita arima, dohatsua bihotza, bere Jauna eta bere Jainkoa erre-zibitzeko gai dena eta hura erre-zibitzean bozkario sandu batez bethetzen dena! (III. k).

Alabaina, ez dirudi hori ere izan zenik Lk eredu bezala baliatu zuena: § 7ko de Rijken aipua eta hari egindako oharra erakusten dutenez, ez da beharrezko eta ezta egingarri ere Lk Iparraldeko autoreren batean —Xurio nahiz bestetan— *zorioneko* ikasi izana edo, erraxago edo egiantzekoago dena, L haietan inspiratu izana berak sortzeko, *zorioneko* < *zorionean* / *zorionezko* < *zorionez* + *-ko* izanik eta hauen distribuzioa, funtsean Ipar / Hego delarik. Ikus §7.1n baita Duvoisinen eta *Maril*-en bi eratako formez ere.¹⁷

¹⁶ Baita *zorion* ere; ik. § 5.5.

¹⁷ Gainera, B. Urgellek gogoratzen didanez, Xuriok *dohatsu* darabil dagokion bezala *-zko*; atzizkiak ikus 31. oharreko *Arte*-ko aipua. Haatik, Xurioren *zorion*-ekiko zordun den partetik (cf. § 5.4), bigarren gradu baina ez bada ere, orobat litzateke *zorioneko*-ri dagokionez. Aurrerapen garrantzitsuak dakartzate Xurioren testuaren bilakabideaz eta iturriez Irurek (2023) eta Urgellek (2023).

4. Zorion

Zorioneko ‘feliz, afortunado, bienaventurado’ ez bide dugu duela 2.100 bat urte ezinezko zen eta bere sustraiak askoz geroago dituen hitz-familia horretako kide bakarra (cf. baita Manterola & Mounole 2023 eta Manterola 2023 ere). Gorago ikusi dugunez *zorioneko*-ren ale exkax bakar bat *ditxoso*, *fortunatu*, *fortunoso*, *bienabenturatu* eta *dohatsu*-ren olatu eta itxasoen artean aurkitu uste du *OEHk* (§ 2) eta orain antzeko egoera bistaratzeko zaigu *zorion*-i dagokionez, *ditxa* eta are *felizitate*-rekin eratzeko askoz exkaxago delarik enparauen aurrean:

Ditxa / titxa

Ni gathibu nadukana kaptiba da berzeren; / ene ditxak hala egin du, ni gathibu bigaren. E 133. *Egundano izan daia ni bai ditxatakorik?* Ib. 225. *Jaun Zerukoak, arren, dindala / kunpletako ditxea.* Lazarraga 1196v. *Desditxaduau ditxaetan / beti narabil galdurik.* Ib. (B), 1200vb. *Bentura ain ditxa anditakoau.* Ber *Trat* 42v. *Titxa onean / iaio zinen saindua.* EZ Noel 153. *Ene ditxa gaitza egieki, / Ardura dut borogutzen.* O *Po* 21. *Ditxa onak, nola baita bera itsu, / hari darraizkonak itsutzen ditu.* O *Pr* 116 (v. tbn 113, 114 y 115). *Horrek zer ditxa derio?* Bp II 89. *Deabru gaistoak ari ta guri geren ditx andi hau galerazi naizik.* Mb *IArg* I 261. *Latin ta griegoak askojakinien ditxa ta gloria ori izan badute.* Cb *EBO* 9. *Santuen zeruko ditxak kontenplatzen.* Cb *Eg* II 181. *Santuak an dauken ditxa ta zorionean.* Oe 66. *Betiko ditxa eta zoriona iristeko.* Gco I 397. *Ditxa andi ezin obeagoko oek begien aurrean daudela, zer eragozpen arkitzen da?* ‘Ventajas’. Izt *C* 149. *Ditxa gabeko denbora.* Bordel 47. *Eskerka zagokon titxaz zeruari.* Gy 318. *Zein kristau ditxa artan arkitu naiko ez litzake?* Lard 458. *Ez dakizu neretzat / nolako ditxa dan.* Bil 74. *Beste nornairen arpegia ikusteko ditxa eskatuaz.* Arr *GB* 48. *Santuari ostatu emateko ditxa izan zuten.* Aran *SIgn* 30. *Begira, kofrade ditxaz betea, alderdi guztietara.* Ag *Serm* 87. *Orain ditxa bat ona / bada kupleletan.* JanEd I 84. *Ez dala gure ditxa lurreko diruan.* AB *AmaE* 408. *Nik dedan ditxa ez dadukate / munduan diran guzizyak.* Tx *B* II 156. *Ez da ditxa oberik mundu onetan.* MendaroTx 272. *Mila ditxa ezti gozatu eta dastatu bazituzten ere.* Arti *Ipuin* 76. *Ditxa bat bazuan berekin: arek etzuan emaztearekin sesiorik jarriko.* BBarand 166.

v. tbn. Tt *Onsa* 74. Saug 97. Zubia 154. *Acto* 447. Urqz 79. Mg *PAb* 113. fB *Ic* II 290. Bv *AsL* 216. Ud 109. *EusJok* 77. In *Etxabu Kontu* 98. *Auspoa* 97, 61. In *BAyerbe* 37.¹⁸

Felizitate / felizidade

Gure felizitatea eztela lurrean konsistitzen. Lç *Ins* C, 8r. *Paradisoa da elijituek aingeruekin perpetualki Iainkoa baithan duten felizitatea.* Lç *ABC* I8r. *Felizitate eternala.* Tt *Onsa* 80s. *Ebetan dago mundu ontako felizidadea.* El 93. *Partizipanteak ditxa eta felizidade untan.* (AN, s. XVIII). *ASJU* 1993, 909.

¹⁸ Ez da ahaztekoa *ditxagabe*-ren (nahiz *ditxabage*, *titxagabe*, *titxakabe*-ren) mordoa ere:

Ala andrea ditxabaga / sortu bazan neskaetan! Lazarraga 1197r. *Ondasun oek galdu badagit, / semea ditxabagea.* Ib. 1196r. *Ditxabageau joan ninzan / ezer бага eskuetan.* Ib. 1197r. *Titxakabeen obi da konsolazionea / Dohakabe zenbait lagun penetan izatea.* EZ *Man* I 101. *Urrun dietzadatzu titxakabe helantzak.* EZ *Man* II 121. *Ai ene titxa gabea, ene on beharra eta urrikalkizuna.* Ax 476 (V 308). *Euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi.* Cb *EBO* 17. *O miñgañ ditxagabe Jaunaren kontra itzezin dezuna!* Cb *Eg* II 35s. *Galduba nas betiko nire ditxa bagia.* Mg *PAb* 76. *O ze ditxabagea, o ze negargarria gelditu zarean!* Obe zen-*duke jaino espaziña bere!* Añ *MisE* 53. *Zahartze titxakabena / Da iragan behar dudana!* Gy 252. *Ditxagabea berriez Santu aiei deika asi zan.* Arr *May* 23. *Galdu naz bada, alaba ditxa bagea.* (V-m). A *CPV* 932.

OEHk Iparraldean Etxeparez (*zori honian*) eta Hegoan Lazarragaz geroz (*zori / onean*) lekukotutzat ematen du *zorion* eta XVIII.aren erdialdetik orokortzat jotzen, zubereraz landara. Han soilik Egiategik, Arxuk eta Casenavek darabiltela gehitzen du eta baita *zorihun* agertzen dela zuberotarrengan eta *CatLanen* (58, *gure zorihun edo zorigaitz sekülakua*).

Alabaina, Etxepareren *zori hon(ian)* nahiz Lazarragaren *zori on(ean)* —bigarren hau *h*-rik gabe arrazoi ezagunengatik— Zko *zorihun*ekin doaz (ez Egiategi eta enparatuen larramenditar *zorion*-ekin). Hots, *zori* + (*h*)*on*-en balio konpositional zaharra dute, ‘aldi, une, ordu, sasoi...’ + ‘on’,¹⁹ eta ez geroago (Larramendiren hiztegiaren ondotik) ia orokortuko den *zorion* konposatuaren ‘felicidad, dicha, bienaventuranza’. Egiategik segurtasun osoz —eta egiantzekotasun handiz gainerakoek, zuzenean edo zeharka— Lren *zorion* konposatu modernoa dakar, 3. silabako *h*-rik gabe —bentako konposatuek zor bezala— eta *on* > *un* ere gabe, bestelako dialekto batetik (Lren *HHtik*) mailegutuan hartutakoei dagokien legez (gogora orok. *gizon* > *Z gizun*). *EKCK* Etxeberri Ziburukoaren *Noelaketik* ‘zorte, ordu on’ gisa har daitezkeen hiru *zorionean* dakartza (*zorionean zarela mundura ethorria*; *zorionean zarela sorthu*; *zorionean dela Jainko Semea sorthu*), eta beste hainbat *zorionez* ere (oraingoan baita bat *Manualetik* ere: *Kaltetik defenda zazu zeure poplu maitea. Eta zorionez bethe primezazko jendea*) eta are Pouvreauren *Imitazioneko Hala zori gaitzean nola zori onean* ere.

OEHn ez dator *zorion* ‘ditxa, felizitate’ garbi bakar bat ere 1700-1750 aldirako²⁰ eta ondoko mende erdiarentzat Mendibururen 8, Kardaberatzen 3, Mogelen beste hainbeste, Larregiren 2 eta Robinen 1; bada oraindik Olaetxearen *ditxa eta zorionean* bat, eta hau *zorion* ‘berrietarik’ dugu, zalantzarik gabe, bere bikote horrekin batera *HHtik* ikasia (cf. § 5.2).

Ez *zorioneko* eta ez *zorionezko* ere ez zuten legez, Leiz-ek eta Ax-ek ez dute *zorionik* ‘felicidad’, ‘dicha’ adieran —horretarako *felizitate* eta *ditxa* darabiltzate, hain zuzen ere— eta ‘ordu,aldi, une (on)’ dirudi Oih eta gainerako gehienetan; *Hartarakotz, Iaun puxanta, zuk iguzu sartzea, / traba guztiak khendurik zori onez bethea*. EZ *Man* II 139 eta *Zer zori-on desira dezaket handiagorik?* Ch III 34, I izan litezke esanahi berriaren oinarri garbienak²¹, baina biak ere ongi sartzen dira usadio zaharrean: *zori* ‘une’, ‘aldi’.

Honenbestez, *zorion* ‘dicha, felicidad’ modernoa ez da *zori* + (*h*)*on*²² hutsa baizik, nahiz eta bide luzeagoa egin ondoren *zori* + *hon-ean* > *zorionean* → *zorioneko* eta hemendik → *zorion* atzerantzko eraketaren bidez garatua (ikus de Rijk 2008ko oharrak § 7.2n «postposition deletion» delakoaz).

Oraindik ere *zori on* ‘ordu, une on’ / *zori gaitz / gaizto* ‘ordu, une txar’ (cf. *HH* s.u.) eta *zori onean* ‘ordu onean’ (ez ‘dohatsutasunean’) nahiz *zori onez* ‘une onean’ aurki daitezke *HHn* eta baita mordoxka batzuk 1800 aldera eta geroago ere: *Gure zorihun edo zorigaitz sekülakua*. *CatLan* 58, *Izanen dugu parte Mikhael Arkhan-*

¹⁹ Cf. *Nor da [...] heldu zaizkigun zorigaitz guziei itzur abal dakiketena?* Ch III 45, 3, *Gure zorihun edo zori-gaitz sekülakua* (*CatLan* 58) eta orobat *Izanaz aberats izaitea, eta gogoz pobre egoitea, da giristinoaren zoririk hobereana*. SP *Phil* 264.

²⁰ *EKCK* Xurioren *zorion*-i dagokion *zorioneko*- bat dakar aurreratu dugunez; ik. § 2ko 7. oharra eta § 7.1.

²¹ Biak izan zitezkeen Lren iturri (cf. Urgell 2000 eta 2005) nahiz ez segurki Axular edo are Leizarragaren pisukoak; ikus beherago § 5.4n Xuriorekikoak.

²² *h*-honen izaera etimologikoaz (*pace* Mitxelena *FHV*), ik. Lakarra (2015).

jeluaren zori onean Jaur 410, *Eta ni, zenbat enizate dohatsü zure zori hunaz!* Arch Gram 45; Hegoaldean ere Gandarak Larramendiri egindako gutunean (*Eranzumenik artuteko izan eztot zoririk*) eta Mogelek bai 1800eko gipuzkerazko dotrinan (*ezta bardin ta era batekua areen ta gure zoriija; nola gero zori edo suerte ona izango due?*) eta baita geroxeagoko *Peru Abarkan* (*Iges egiten badeutsa zori onak*) ere.²³ Labur, ez zorioneko eta ez zorion konposatua ez ziren ez -80an eta ez +1545 baino menderen bat geroago ere.

5. Larramendiren hiztegi eta testuetako lekukotasuna

5.1. *El Imposible Vencido* (1729)

Gramatikaren VI. atalean «Apendiz de la poesía bascongada» deritzon —beharrezko zeritzon bereari ere atal hori eranstea ez zekion faltan gerta latinaren eta enparauko hizkuntzetako gramatiketan usuko zena—, egileak euskarazko poesia nahi zuen azaldu, eta hori «así de la que está en uso, como de la que es capaz». Lehen alderdiari dagokionez, Etxeberri Ziburukoaren *Noelaketik* eta *Manual Devotionezkotik* adibide bana ematen, iruzkintzen eta gorai patzen ditu bertan, Haranbururen beste batekin osatuz atala.

Bigarren gaiari dagokionez («de la [poesía] de que es capaz»), euskara edozein neurri eta moldetan ere jarduteko erromantzea bezain gaitua dela aldarrikatzen du, eta horretarako zenbait adibide eskainiko dituela iragartzen. «Euskara» bat, hots, erdarazko «romance» baten ordaina, aurkeztu eta gero hasten dira guri orain axola zaizkigun iruzkinak:

Poco ha se compusieron un soneto y tres décimas en bascuenze con sus traducciones castellanas y han sido la prueba mejor de la poca inteligencia que los vascongados tienen de su hermosa lengua y de las leyes de la traducción. No me admiro que el soneto y décimas vascongadas en que se afectó alguna elevación y obscuridad necesiten de comentario porque sucede lo mismo en muchas poesías latinas, castellanas y otras, que necesitan de escolios para entenderse. (*Arte*, 389)

Alegia, ez ohiko, ez usuko poesiarekin, baina *litekeenarekin* edo *egingarriarekin* ari gara, beraz, —Larramendik bere testuetan behin baino gehiagotan zerabilen *eginkizunarekin*,²⁴ alegia— eta, horrenbestez, *litekeen* hizkuntzarekin ere dihardugula ulertu beharko dugu, orobat. Hara, bada, egileak demaigun adibidea:

Lo que es de admirar es que aun hasta los nombres más obvios se les hagan difíciles por solo mudar el caso, dexar el artículo y otras variaciones propias de la syntaxis. Dirán fácilmente lo que significa *zori oneán*, como también *eché onean*; pero si se les pregunta que es *zori-á?* responden *nic daquit bada*, que no lo saben; etá cer oté da *eché-á?* Ori badaquigu: *zori-ónac*, *eztet aditzen*; *eché ónac bai*. No puede imaginarse

²³ Cf., xix. mendearen erdialdera Duvoisin lapurterra eta Bilintz gipuzkoarra: *Ephe laburrik barnean*, nere zoriaz jakintsun eginen naiz, Dv Led 54; Zori obeko *beste denboraz / maite ninduen ezin geiago*. Bil 111.

²⁴ *HFk* 'factible'-tzat dakar, beste ordainik gabe; 'possible, cosa possible, *izaquizuna*, *eguiquizuna*' eta «posibilidad, factibilidad, *izaquizundea*, *eguiquizundea*. Lat. Possibilitas» dakartza, aldiz, eta 'potencial, *alegoquiduna*'.

menos reflexión. Más: entienden lo que significa un adjetivo acompañado con un nombre y al mismo adjetivo no le entienden, acompañado de otro.

Ondorioa, oso larramenditarra:

Orain bada sinis nazazu, ez daquizula euscaraz eta aimbat guichiago daquizula, ceimbat gueiago uste dezun. Es menester pues que se persuadan que si no dan en unas cosas tan fáciles, mucho menos darán en las recónditas y dificultosas, que no se aprenden sino con grande estudio y trabajo. Pongo ya el soneto y las décimas...

Eta ondoko orrialdeetan datorkigu *zori on* horri dagokion ahapaldia: *Jauná, eguín edér orrez / Zori on cecenari / lun-erdiac dituenari / Illarguí betezcó ohorréz* (sic). «Tu acción brillante Señor / Dio a la fiera mil fortunas / Poniendo sus medias lunas / En plenilunio de honor», hots, *OEH*ko 'felicitación, enhorabuena'. Aitortu ahal da *zori on* zein *zorion* ez dela horko zailtasun eta berrikuntza bakarra eta ezta agian nagusia ere (cf. horren kide *onesgun, indardun, onesle-usartzí, icigun, mindun, escutagai, hilgunaz, basotia, hiru bostgun, esanguiac, etab.*).

5.2. *Hiztegi Hirukoitza* (1745)

Hiztegi Hirukoitz-ean Larramendi *zorioni* buruzko zertzelada eta adiera berriak eranstera dator: «Fortuna, felicidad, *fortuna, patu ona, zoriona, azartona*. Lat. Prospera fortuna». On da ohar gaitezen sarrerako euskarazko lehen ordaina²⁵ *fortuna* bera dela eta *patu ona* bigarrena, hots, mendebaldeko dialektoei *HHn* erregulariki esleitua, baina oraingoan Gkotzat eman behar *OEH*ko datuen arabera; soilik 3. tokian dugu *zoriona*, hots, *zori ona*. Are nabarmenago: eman dugun sarrera izatez *fortuna*₂ litzateke eta ezin ahantz *fortuna*₁ horren aurrekoxea:

Fortuna, se tomó de el vascuence, *fortuna* y viene de *sortuna, sortzeduna*, el de los sucesos, nacimientos o *sortu-ona*, buen nacimiento, successo. *Fortuna, patua, zoria, azarta*. Lat. Fortuna».

Adiera zaharrak hor dirau, halere:

A buena hora, a mala hora viene, *mugonean, mugonez dator, mugaitzean, mugaitzez dator, ordu gaistoan, donguean dator, ordu gaistoan, donguean dator*, &c. Lat. Tempetive, intempetive invenit. En buena hora vengá v. md. *ordu onean, zori onean datorrela*. Lat. Fauste ac feliciter adveneris.

Baina dagoeneko (*Arte*-an ez bezala) Lrentzat *zorion*-ek beste adiera bat zuen:

«Dicha, felicidad, *dicha, dichea, doaya, doaiña, zoriona, doatsundea*. Lat. Foelicitas».

²⁵ Urgellek erakutsi duenez (cf. 2002: 639-648, batez ere 647) *HH*ko sarreretako euskal zatiaren osagaien antolamendu eta hurrenkera ez da zorizko edo halabeharrezkoa, beti berbera edo oso antzekoa baizik: (G + B + L/N + asmatua). Honek esanguratsu egiten du *zorionen* kokapena, Lk berak asmatu *doatsundearen* aurretik. Hori bera gertatzen da beheerago gogoratzen den erabilerarekin: 15 aldiz *dixari* lotua eta soilik behin *zorion* bakar edo beregaina; gogora, azkenik, *Arteko* atalaren izena.

§ 3ko *HH*ko lekukotasunak aztertzen baditugu 'afortunado'-ren ordainak (*zori* 1. kokagunean, *doatsu* 3.ean) zaharrago dugu 'feliz', 'próspero', etab. baino, non *doatsu*-ren adibideak lehenik doazen eta *zorion*-eratorriak azken.

Blanca Urgellek sarrerren egituraz eta barneko osagaien hurrenkeraz esandakoari kasu eginaz (ik. 25. oharrean), jabetzen gara *dicha* eta *dichea* Gko eta Bkoak direla, hurrenez hurren, lehen ordainak, Nafarroa/Iparraldekoak darraitelarik hurrengo kokalekuan: *doai-doain*. Nongoak edo norenak ote enparauko *zorion* eta *doatsundea*? Norbaiti irakurriak edo berak asmatuak zalantzarik gabe. *Doatsundez*²⁶ zalantza gutxi bide du inork —*OEHk HHko* sarrera honetan eta Harrieten beste batean aurkitzen du soilik, inongo testu-lekukotasunik gabe—; baina, eta *zorion*?²⁷

Badira oraindik sarrera gehiago ere ordainen artean *zorion* ageri dutenak:

«Bienandanza, *zori ona*, *patu ona*, *doatsuera*. Lat. Felicitas» (eta «bienandante, *zorioneco*,²⁸ *patuoneco*, *doatsua*. Lat. Felix, fortunatus»),

«Bienaventuranza, felicidad, *doatsuera*, *zoriona*. La. Felicitas»,

«Enhorabuena, congratulación, *zoriona*, *pozerasquida*. Lat. Congratulatio.

«Felicidad, *doatsundea*, *zoriondea*, *zori ona*. Lat. Felicitas»,

«Prosperidad, *doatsuera*, *doatsutasuna*, *patu ona*, *zori ona*. Lat. Prosperitas».

Hots, *patu onaz* landa, berak asmatu *doatsuera*, *pozerasquida*, *doatsundea*, *zoriondea* eta Iparraldetik hartu *doatsutasun*-en aldamenen.

5.3. Asuntzioko Sermoia (1740)

Urte, egile eta tokirik markatu gabeko Asuntzioko sermoi (AS) artean ezezaguna erabili genuen Lakarra (2022a)n —ik. Lakarra (2023a)-ko edizioa— Larramendik sortu eta hari eta haren jarraitzaileei loturik hedatu zen *jatorri-jatorriz(ko)*-ren familiaren eta horien menpeko *jator* are berankorrigoaren bilakabidea aztertzeke. *Jatorriz* lehendabizikoz euskararen historian dagoeneko ezagun gertatzen zaigun 1737ko Larramendiren Azkoitiko sermoian lekukotzen da (*jatorriz*) eta, gero —*HHko* «dimanación» eta «origen» sarrerak baino lehen— 1742an berragertzen hiztegiaren hitzaurrean.²⁹ Eta hitzaurrean ere ez nonahi, § 26 «De las voces facultativas (y de la licencia que me tomo en la formación de algunos vocablos» atal ezin adierazgarriagoan baizik, hots, euskaraz horrelakorik ez eta Larramendik berak zergatik eta nola *asmatu* zituen azaltzen duen leku berean, alegia:

Beraz, Hermogenes, icenac ifintea ezta inolaz ere zuc uste dezun bezala gauza arina edo chiquia, ez eta guizon char ta chatarren laná. Eta alaric eguia dio Cratyloc dionean berez ta bere izatez dagozcala gauzai icenac eta edocein guizon ezta la icenguillea, espada araco gauen *jatorria* azaltzeco, ta aguertzeco bereisquiro gai dan icenari dagocana (*HH*: l).

Asuntzioko Sermoira itzuliaz, *jatorri* ez da testu hori Larramendirekin lotzeko arrazoi bakarra, bertako erretorika eta lexikoa azter ditzanarentzat: 250 lerro es-

²⁶ Osaeraz («Aditz-izenak eta haren ondorenak») ikus Urgell (2000: 599hh, bereziki 601). «Felicidad»-en ere errepikatzen da eta lagun berriarekin gainera (ikus testuan beheraxeago atal honetan).

²⁷ «Afortunado, *zori onecoa*, *patu onecoa*, *doatsua*. Lat. Fortunatus, a, um; felix, cis»-ekin erkatzen badugu goiko Gramatikako oihartzuna (*zori on* I-Adj. genuke oraindik, ez konposatua).

²⁸ Irulegitik —espazioan, baina ez denboran!— urrutikoen ez genukeen Lizarraga Elkanokok *fortunoso* darabil behin baino gehiago (*O ladron fortunoso, fortunoso zara*), baina badu *Bizi gontan nasteka daude zorionekoak ta gaistokoak il artaño* (323) LE-Ir ere. Arestian argitaratu *Joakin Lizarragaren lexikoa-ren azterketan* (Iriarte 2022), aldiz, ez da agertzen ez bata eta ez bestea. Ikus, orobat, 56. oh.

²⁹ Cf. «... tiene de antigüedad casi los 1742 años en que estamos (1745: lxiii)» dagoeneko B. Urgellek bere tesian markatu bezala.

kasean 29 hitzen Hegoaldeko lehen agerraldiak dira,³⁰ orobat 18ren erabatekoak (Hego nahiz Iparrekoak), halaber 14 hitz Larramendiren bidez Iparraldetik Hegoaldean bertakotuak, baita 15 Larramendik asmatu edo «bataiatuak» ere (maileguak ondare zaharrekotzat emanak), 5 Hegoaldean 1800 b.l. lekukotu gabeak izanik, ASk 60 urte edo gehiago aurreratzen du horien data—... Hau guztia aski ez edo eta, 40 lerro exkaxean lau aldiz dakusagu —ez behin halabeharrez— euskararen historian hortik landara inon agertzen ez den sintagma harrigarria (*miraldizko berritasun*):

1. ona bada Maria Santissimaren eriotza soseguagati, ohea izango da *miraldizko verritasunagati* (3r),
2. bigarren doaya da ohea izatea *miraldizko verritasunagati* (3r),
3. icustean Maria Santissimaren eriotzan alaco *miraldizko verritasunac* (3r),
4. Autor dezagun, bada, Maria Santissima ceruco erreguñia orren gloria dala *miraldizko verritasuna* (3v).

Ohar bedi, haatik, egilearen hiztegian elkarren segidan doazela horren bi zatiak (eta *Artean* azaltzen dela izendatuki *-zko* lokailua):³¹

- «Novedad, *berritasuna*. Lat. Novitas»,
 «Novedades, *berriac*, véase nuevas. Lat. Nuntij»,
 «Novedad admiración, *miraldia*. Lat. Mirum»,
 «me hizo novedad, *miraldi batec eman cidan; berri iruditu citzatadan*».

Geroztik badakigu —Aita Aranak Loiolako Kolegioko Historia liburutik paper-mutur batean gogoratu bezala (cf. Lakarra 2023a)— sermoi hori Larramendik 1740ko abuztuko Amabirjinaren bezperan (VIII/14) Loiolan emandakoa dela: «La víspera de Nuestra Señora platicó el P. Manuel de Larramendi y el día de Nuestra Señora se dieron dos extraordinarios y truchas» (46.f.).

8 orrialde pasatxoko sermoi horretan bada oraindik aipatzeke ezin utz dezakegun zertzelada harrigarrik: 16 aldiz agertzen da —Hegoalde osoan behin ere 1745 baino lehen aurkitu ez dugun— *zorion*, horietarik 15 *dicha eta/edo zorion* sintagmaren barnean, eta beste behin *zorion* beregaina (3v):

- Dicha eta *zorionez* vetea (1r),
 Beren gurasoen dicha eta *zori onac* (1r),
 Bere eriotzaren sosegua, dicha eta *zori onac* (1v),
 Gloria gueiago, sosegu gueiago, dicha eta *zori on* gueiago (2r),
 Izan beza batec dicha edo *zori onen* bat edo honraren bat (2r),
 Ez due eguingo eren dicha eta *zori onen* jabe? (2v),

³⁰ Baita gainerako 7 bigarren agerraldi ere, Lren beste hainbeste lehendabiziko testu-lekukotasunen ondotik.

³¹ Cf. «El Romance tiene unos casos que parecen del genitivo de posesión, y son en Latín, o del ablativo o son adjetivos (...) y estas locuciones en Bascuence no son del genitivo sino del adjetivo, vg. *Urrezcò buruá, cillarrezcò escuá, zurezcò guizoná* (...) Y la razón es porque los sustantivos que significan la materia de que se compone algo, forman adjetivos en *ezcò*, como en Latín en eus, *urré, cillár, zur*, aurum argentum, lignum, *urrezcò, cillarrezcò, zurezcò*, aureus, argenteus, ligneus (Larramendi 1729: 263 eta iruzkina in Urgell 2000: 491). Cf. § 3 akabuko Xuriorren eta § 7.1eko *MarII* (1838) eta Duvoisinien *zorionezkoak*.

Argati, ez cegoan contentu, ez cegoan sosegu paradisuco dicha eta *zori on* guztiaquin, adiqueta egoqui arte ceñi comunicatu edo parte eguin dicha eta *zori on* guztietan (2v, 2v),

Erdiratuco ditue ama semea[c] eren artean dicha eta *zori on* guztiaç (3v),

Gaurco egunarequin recivitu cituan honrra, dicha eta *zori onac* (3r),

Maria Santissimac autu zuela secula iñorc quenduco ez dion *zori ona* (3v),

Maria Santissimaren eriotza izan zala dicha eta *zorionez* vetea (4v),

Nai dezue cristauac parte izan Mariaren dicha eta *zori onetan?* (4v),

Amparatu ezazu, bada, dicha eta *zori onez* beteac contatcen dira zure amparoen (5r).

[Hauetzaz landa bada beste behin *dicha eta honra* (2v) ere]

Hainbat aldiz errepikatu bikote horretan ozen aditzen dugu goian (§5.2) bildu *HH*ko sarreraren oihartzuna: «dicha, felicidad, *dicha, dichea, doaya, doaiña, zoriona, doatsundea*. Lat. Foelicitas): lehen sarrerako *zorion*-ek betetzen zuen kokagunearen arabera irakurriztat edo asmatutzat markatzen genuen; orain ASko errepika ugariak gehi *etaledoren* bidez azalduak ondorio bertsura —hizberriaren hedakunde asmo agerira— garamatza bide edo argudio osagarritz.

Beraz, behin bakarrik azalpen edo argigarririk gabe eta 15 aldiz Larramendik eta bere jarraitzaileek hizberri edo ezezagun bertakotu gabeekin egin ohi zuten bezala ekandutu eta bertako bilaka zedin.³² Bere neurrian, funtzionalki konparagarri da *triunforen* erabilera ASn (7 aldiz) eta *HH*ko «isilpeko bataioa»: ez du aldarrikatzen euskara denik —*alabanza* famatuarekin edo *suabe* eta beste askorekin egin bezala—,³³ baina bai harentzako familia aipagarria osatzen:

«Triunfador, *triunfalaria, gudondarlea*. Lat. Triumphans»;

«Triunfal, *triunfara, gudondarra*. Lat. Triumphalis»;

«Triunfar, *triunfatu, gudondartu*. Lat. Triumphare»;

«Triunfante, *triunfalaria, gudondarlea*. Triumphans»;

«Triunfado, *triunfatua, &c.* Triumphatus»;

«Triunfo, *triunfoa, garaitondoa, gudondarte*. Triumphus».

Ezin ahaztuko Asuntzioko Sermoi laburrean *triunfo*k duen erabilera: zazpi aldiz ageri zaigu, lau bider 3r orrialdearen akaburantz eta beste hiru 3v-ren hasieran —hain espazio txikian bildutako— adibide ugaritasun honek erakusten duelarik hitz honen ezagutza eta erabilera euskaraz aldezteko egilearen grina:

(...) Maria Santissimaren *triunfoa* (...), Maria Santissimaren *triunfo* onec (...), gañezcatcen duela Jesucristoren beraren *triunfoa*. (...), igo zuen bere virtute propioarequin, *triunfo* aundietan cerura [3r]

³² Cf. Lakarra (2022a, 2022b) *jatorriz* eta enparauez, Urgell (2018) modu orokorrean teknika horrezaz lexiko ugalketarako nahiz Aristizabal (2023) xviii. mendeko eta xix. mendearen hasierako nafarrerazko zenbait testutan (F. Elizalde, Mikelestorena, Añibarroren dotrina, J. Matias Elizalde) egindako azterketaz.

³³ «Pomier eskuizkribuaren» egileak, aldiz, (cf. Gómez & Zulaika 2020) ez zituen gogoko Larramendiren «bataioak» eta horregatik aldatzen du «*suabe*, es voz Bascongada, *suabea* que significa lo mismo...» → P 2018 «*limuria*, suabe» eta P 2034 «*leuna*, suabe»; alabaina, ez da zer pentsatu trukaketa horretarako *HH*tik bertatik urrundu beharra izan zuenik: cf. *HH* «lúbrico, resvaladizo, *limuria, labaña*» eta *HH* «liso, *leuna, leguna, lisoa*» (ik. Lakarra 2022b).

Jesucristoren *trunfoan* (...), Maria Santissimaren *trunfoan* (...), Maria Santissimaren *trunfoa* (...) [3v].

Aurreko lekukotasunen ondotik ASko *zorion*-en erabilerak bere kasa, huts-hutsik, eta besteren laguntzarik gabe, testua *HH*ren egile berarena dela, Larramendirena, alegia, bermatu ahalko lukeela baieztatu daiteke *miraldizko berritasunek, jatorrik, trunfo* eta gainerako hainbat kide eta ezaugarri markagarri horretarako dagoeneko gehiagoren behar eta premiarik utzi ez badute ere.³⁴ Bestalde, sermoi honen eta *HH*-ren ekoizpenaren artean aurkitutako erlazio estuak Larramendiren *zorion*-en erabilera oparoaren jatorria argitzeko urratsen bat egitera baimen gaitzake, ez asmaketaren, baina irakurketaren alde, hain zuzen.³⁵

5.4. Larramendiren *zorion* 'dixta'-ren jatorria eta Xurioren *Imitazionea* (1720)

Lakarra (2023a)-n —B. Urgellen *HH*ren barneko historiazko ikerketa (2000, 2001, 2002, 2003, 2005) baliatuaz— erakutsi ahal izan dugu AS 1740ean osatzean aurreko urtean argitaratu *Dic. de Autoridades*eko S-Z liburukikoen ordainekin ari zela Larramendi eta, zehazki, dagoeneko liburuki horretako sarrerei dagokien zatiaren zirriborroaren erdia baino gehiago ere egina zuela eta V- letrara iritsia zela, seguruenik. Baieztapen hori *HH*ko aurreko letretatik Asuntzioko sermoian islatzen ziren hitzen eta aztertu berri dugun *trunfo*ren analisiak iradokitzen digute.

Orain *HH*ko «Dicha, felicidad... *zorion*» sarrera hartzen badugu,³⁶ 1732an argitaratu *Dic. de Autoridades*eko D-F liburukiari legokioke eta, dakigunez, Larramendi 1731-1734ean Baionan Erregina alargunaren konfesatzaile zelarik, oso egiantzeko dirudi andoaindarrak hantxe eta orduantxe lortzea, besteak beste, (1733ko Lavieuvillen dotrinaz eta Leizarragaren ale mailegatuaz landa) Xurioren *Imitazionearen* alea, gero *HH*ko erabilitako liburuen zerrendan aipatua.

Izan ere, andoaindarraren *HH*ko «De los libros en vascuence» deritzon XIX. atalean datozen lehen biak 1733ko Baionan argitaratu dotrina pare dira, «uno breve

³⁴ *Autu, eskualde, mundutar* eta *seguranza* ere hainbat aldiz erabiltzen dira testu txiki horretan eta *diña, etorki, guraso, guzia dagikean, mende, sortze*, etab. KSn; horien xehetasunetarako ik. Lakarra (2023a, eta prestatzen-a, ss.uu.). Cf. 46. oh. Lk Iparretik Hegora zabaldutako hitzez eta §2.2 akabuan aipatu Lren beraren adierazpen garbia.

³⁵ Ubillosek inoiz *zorion edo doatasun* nahiz *doatasun ta zorion* darabiltza, *dixta ta zorion, atsegin edo zorion, zorion, on ta ondasun* Kardaberatzek, *doatsuak edo zorionean jaiok gu* Mendiburuk, *dixta ta zorion* Olaetxeak —baita oraindik inoiz Añibarrok *LoraSortan* ere— (gero *Zabalak zorion ta grazia, zorion eta gozotasun, zorion eta anditasun, zorion eta gozamen...*); XIX. mendea ongi sartua zelarik Etxagaraik sintagma zabalagoetan kokatzen du usu *zorion: aitor dezagun alegre zorion, poza, aitor dezagun gure doai zoriona, zerutik datoz bakea eta atsegin, zorion, poza, soñuba...* Ez da biderik ohikoena, baina helburu bertsua dugu funtsean, euskara herrikoian ezezagun edo ezohiko ziren hitzak ulertterrago eta irensgarriago egitea, alegia.

³⁶ E-G hiztegian «*zoriona, dicha, felicidad*» dakar (Altuna 1967: 299). Orri eta zutabe berean «*zoria, sazón, coyuntura, madurez*», «*zoritu, madurar, sazonar*», «*zoriona...*», «*zorian, zori zorian, a pique, casi casi*», «*zorionean, zorigaiztoan, en buena hora, en mala hora*» eta zutabe berean aurreraxeago, «*zoriondea, cumplimiento, parabien*», «*zorionbaguea, zorigaiztocoa, desafortunado, infeliz*». Aurreko zutabeen, «*zorionecoa, dichoso, feliz*», «*zorian, a pique, a punto de*», «*zoritu, madurar, hacerse cuerdo*», «*zorigaitz niri, zuri!* Ay de mi!, Ay de ti!», «*zoriona, felicidad, dicha, fortuna*», «*zorionecoa, dichoso, feliz, bienhadado*», «*zoriontasunac, bienes de fortuna*». Beraz, ordurako familia eratua zela (edo zuela) dirudi.

que contiene solo el Texto y otro más largo que contiene la explicación de las cuatro partes del Texto», goraipamen markagarriarekin egin ere: «Es cosa muy selecta, hízolos imprimir en Bayona, el ilustrísimo señor don Pedro Guillelmo de Lavieuvville, obispo de aquella ciudad, cuya virtud, zelo y prudencia singular no puedo alabar bastante. Imprimiéronse año de 1733».

Horren ondotik dator, laburrago halere, Xurioren aipamena: «2º El Kempis o *Contemptus Mundi*, traducido por M. Chourio, Rector de San Juan de Luz, impresso año 1720». Liburu horretan eta *EKCz* baliatuaz *zorion*-en ondoko agerraldiak esku-ratu ditugu:

- Hek sínhetsi dutena síñhe[s]ten dut nik ere; hek zuten esparantza bera dut; eta segurantza humill batekiñ uste dut helduko naizela zure graziarekiñ batean hek iadanik ardietsi duten *zorionerat* (XI. k.)
- Iduriz gure bakekotz eta *zorionekoz* diren gauzak eztire deus zu gabe, eta eztire baliatzen garabik gure dohatsutasunekotz (LIX. k)
- Den beraz arbuaiatua, den humiliatua, den gizonen begietan eroria eta garaitua, sofrikariz kargatua, abiaduraz flakatua, zurekiñ batean argi berri baten alban bitz dadintzat eta fiñean dohatsuen *zorionaz* zeruan goza dadintzat (I. k)
- Orduan haren espirituko begiak idekiko dire, kausituko du bere burua aberatz zeruko ontasunez, eta berak ere miretsiko du bere *zoriona*, haren bihotza idekiko da eta zabalduko bozkarioz eta emanen du bethikoz bere burua haren eskuetan (XV. k)
- Munduko ontasun guziak bazintu ere etzintezke hargatik dohatsu, ezen Jainko gauza guzien kreatzaillea baithan datza zure egiazko *zoriona* (XVI. k)
- Ene semea, sentitzen duzunean ematen dudala zure baithan berotasun saindu bat eternitateko *zorionarentzat*; desiratzen duzunean zure gorputzeko presondegitik ilkhitzea ene argien kontenplatzeko, orduan zabal zazu zure bihotza (XLIX k)
- Fiñean banitate handi bat da haiñ laster iragaten diren gauzei amudios lotzea eta bethi iraun behar duen *zorionarentzat* ez kharrrik ez lehiarik izatea (I. k)
- *Zorion* bat da horla pairatzea; eta hori etzaio gaitz eta penagarri idurituko bihotz humillari eta bere baitan baiño lainkoa baithan fidatzenago denari (XXXVI. k).³⁷

Nire lan honen aurreko eskualdietan uste nuen *zorion* ‘felizitate’ Larramendik berak asmatua zela, testu zaharragoak hurbilagotik miatu beharrean *OEHk* zekarrenarekin asetu nintzen bitartean. Alabaina, dela soilik testuaren erdia prozesatu zutelako³⁸ edo gero emandako adibideen hautaketan izandako gorabeherengatik, errazegi da akats historiko horretan erortzen.³⁹ Euskal Klasikoen Corpora erabiliaz, aldiz, Larramendiren egitekoa beste bat izan dela ikusten dugu: ikaslearena lehenik —Xuriorengandik beste inorengandik⁴⁰ baino hobeto eskura zezakeen *zorion*-en balio be-

³⁷ Aurreko zortziekin *EKC*ean datozen ondoko biak, ordea, *zorionezko*-ri dagozkio ez *zorioni*, § 3ren amaieran iragarri bezala.

³⁸ *OEHk*o osorik prozesatutakoen zerrendan agertzen da, baina B. Urgellek diostanez, 4 liburuetarik 2 baino ez ziren egin egiatan.

³⁹ Jakingarria da *zorion* berriaren aldamenen hainbat *zori on* (eta *zori gaitz*) zahar badela Xurioren testuan: *zer zori on desira dezaket?* (xxxiv. K), *zori gaitz halaber aberatsentzat* (lviii. K).

⁴⁰ Litekeena da Xurio ikertu ez ditudan aurreko *Imitazioneen* zordun izatea, baina, dakigularik, horiek ez Larramendik aitortzen ez bestek markatzen ditu andoaindarraren zuzeneko iturritzat (cf. orain, gainera, Urgell 2023 lanaren ondorioak).

rria— eta zabaltzailearena ondoren, *HH* amaitzeari eta argitaratzeari itxaron gabe AS bezalako sermoien bitartez⁴¹ eta handik gutxira jesuiten arteko bere jarraitzaile batekin batera —Mendiburrekin— osatu zuen dotrinaren bidez (1747ko Burgosko anonimoaz, alegia).

5.5. Larramendiren gainerako testuak

Larramendiren *HH* ondoko testuetan ez *zorion*, baina *zorioneko* da, berak He-goaldera ekarritako *dohairen* eratorriarekin (*doatsu*) konbinatuaz: San Kasimiroren otoitz datagabeen «Esazu begi doatsu, Virgíña *zorionecoa*» (non *doatsu* = *zorionecoa*), Andoaingo Sermoian «ceruán duén doatsutásuna eta beti *zorionecóa* izátea» (*doatsutásuna* = *zorionecoa* izátea), eta hor bertan «cerren séculaco doatsú eguín dezutén, ta *zorionecó* sántuen lagún (*doatsu* = *zorionecoa*) eta *zorioneco* guizona *ninzala ni*.

§ 3n markatu den legez, Burgosko Dotrinan (1747) hainbat aldiz (8tan) agertzen da *zorioneko*, dotrinako 'bienaventurado' itzultzeko; horiekin batera datozkigu bertan *doatsutasunak edo zorionak* (2tan) eta *zoriona ta gloria* esanguratsuak ere. Testu horretan B eskuak [= Larramendik] egindako oharrak ikusiaz errazki ohar gaitzeko hark gehituak direla batzuek eta besteak: 44.7-8 «*doatsutasunac edo zorionac*» —nahiz orrialde bereko hainbat «*Doatsuac*»i erantsi *zorionecoa*— eta hurrengo orrialdean ere diren bi sailetarikoak (cf. Lakarra 1986: 587).

Azkenik, Larramendirena izan litekeen eta argitaratzeko prestatzen ari naizen Kontzepzioko Sermoian —*zorioneko*z landa (ik. § 3 akabuan)— *zorion* ere aurkitzen da: *ilgo cirala eta galduco zutela beren zorion gucia* (2).

Bistan da dagoeneko Larramendik bere testu inprimatu eta argitaragabe guztietan —*Artean* hasi, Hiztegiko hainbat sarreratan, sermoietan nahiz enparauetan— ahalegin handiak egin zituela *zori* eta *zori on*-en arteko aldea argitzen (dagoeneko 1729an ilunduxea baitzirudikion) eta *zorion* berria (eta *zorioneko*) aldarrikatzen —hark eta bere ondorengoek hamarkadetan beste hainbat hitzekin egin zuten moduan—, izan ere, ez *zorion* eta ez *zorioneko* eta ez horien familia ez baitziren oraindik aski ezagun bere inguruan, zalantzarik gabe.

Hedakunde-ahalegin hori hobeki antzematen da horien familietara jotzen badugu:

«Dichosamente, *dichosquiro*, *doairo*, *doainquiro*, *zorionean*. Lat. Feliciter»,

«Dichoso, *dichosoa*, *doatsua*, *doaintia*, *zorionecoa*. Lat. Felix»,⁴²

«Feliz, *doatsua*, *doaitia*, *zorionecoa*, *patuonecoa*. Lat. Foelix»,

B. Urgellek neuretzat egin eta berariaz eskertu nahi diodan ikerketa bereziak erakusten du Xuriok ezin har zezakeela Aranbillagarendik hark ez zuenik: *dohatsu* eta beste zenbait itzulinguru darabil (original frantsesetik mailegatuaz landa) baina ez *zorion* eta ez *zorioneko*-rik. Ez da, beraz, oraingoz, Xurio baino lehenagoko *zorion*-en adibide segururik (eta horrenbestez, ezta *zorioneko*-renik).

⁴¹ Gorago aipatu J. I. Aranaren idazkiak eta haren iturri den Loiolako Kolegioko Historia liburuak dioskutenez izan ziren ezagutzen ez ditugun Loiola eta inguruetan Larramendik egindako zenbait sermoi, arestian ezagutu dugun ASz landa (eta zerrenda ez da osoa AzkS ere ez baitu liburu horretako zerrendak biltzen); horrezaz gainera, badakigu Urolatik landara mordoia egin zuela, orain arte soilik SAGS eta AndS eskuratu arren (ik. Lakarra 2023a).

⁴² Marka bedi Pomierrek sarrera hau «dichoso, *dichosoa*» dakarrela, ez *doatsu*, *doainti* ez *zorioneko* (eta ez *zorion*-ik, baina bai *suerte*); gainerako ordainak harentzat ez ziren baliagarri, edo asmatuen edo Gz kanpoko euskaratik bildutako en susmoa hartzen baitzien nonbait (ik. Lakarra 2022b).

«Felizmente, *doatsuqui, doatsuro, zoriongui, zoriondo*. Lat. Feliciter»,
 «Felicitar, hacer feliz, *doatsutu, zoriondu, doatsu equin*. Lat. Felicem reddere»,
 «Felicitar, dar el *parabien, congratularse, véase*»,
 «Congratulación, *pozerasquida*. Lat. Congratulatio»,
 «Congratularse, *pozerazquidatu*. Lat. Congratulari»,
 «Congratulatorio, *pozesquidacoa*. Lat. Congratulatorius, a, um»,
 «Parabien, *obetaria, pozerazquida*. Lat. Congratulatio. Vease *enhorabuena*»,
 «Parabienero, *obetaria, pozerazquidaria*. Lat. Congratulator»,
 «Enhorabuena, congratulación, *zoriona, pozerasquida*. Lat. Congratulatio»,
 «Enhorabuena sea, *biz orduonean*. Lat. Sit, vel fiat fause ac foeliciter»,
 «Anda enhoramala, *zoaz ordu gaistoan*. Lat. Abi in malam rem».

Ezin markatu gabe utzi euskarazko ordainetan zein ziratekeen Larramendik eskaini *zorionen* kide eta ahaideon bizitza: hitzberriak, sortu berri-berriak, gehien-gehienek ez lehen eta ez gero erabilera handirik izango ez zutenak, *zorion* eta *zorionekorekin* 1745 geroztik gertatuaren oso kontrara. Honela, *OEH*ren arabera, *dohairo* soilik Harrieten hiztegian aurkitzen dugu, *doainkiro* ez dator *OEH*n bertan ere, *doainti* soilik Alzagak eta *doaiti* Mujikak dakartzate XIXaren akabuko larramenditar hitzen gorakada ezagunarekin bat (cf. Pagola 1984 klasikoa eta Urgell 2018 bikaina), *zoriongi* bakarrik *HH*ak berak, *zoriondo* Añibarroren hiztegiak *HHz* landa, *pozerazkida HH*ko sorlekura mugatzen da (eta *pozerakida* Harriet zordun handiaren hiztegian agertzen), *pozerazkidari* ez dator *OEH*n... Horiek dira, bada, Larramendik *zorion* eta *zorionekoren* idekotzat aurkezten dizkigunak.

Are gehiago, aurreko zerrenda horretan ez diren *zoriontasun* eta *zoriontsu* aski be-rankortzat eta —markagarriro XIX. eta XX. mendeko— Bn erabilitakotzat ematen ditu *OEH*k; alabaina, lehendabizikoa dagoeneko *HH*n dago «bienes de fortuna» sar-reran eta segurutzat izan liteke hortik hartu zutela Añibarrok eta Moglek, nahiz eta gehiago erabili *OEH*n lehentzat ematen duten adiera abstraktuan. *Zoriontsu* Astarloa bizkaitarra (1816) arte ez agertuak, ezer frogatzekotan, batez ere *zorion*-en beraren berankortasuna erakutsiko luke, *zoriontasunek* bezainbat: marka bedi dagoeneko Lei-zarragaz geroz (1571) eta, seguruenik, arrunt lehenagotik zetorkigun *dohatsu*-rekiko mendeetako aldea gogoratzen dugunean. Ez da harritzekorik, *doe/dohain* oinarriak lehen testuetatik aurrera protohistoriaraino igotzen baitira, *zorion* XVIII hasieran edo XVII hondarrean gelditzen den bitartean.⁴³

6. Laburbilduaz

Aurreko orrialdeetan ikusitakoaren arabera, *zorionekoren* eta *zorion*-en inguruan (eta hemen ia aipatu ez dugun *zori*-renean)⁴⁴ oraindik zer ikerturik bada ere, hartaz segurtasun apur batez esan ahal daitekeen gehiena edo ia guztia Larramendiren eta haren ondoko lekukotasunetan oinarriturik bide dateke, ez 1800 bat urte lehenagoko

⁴³ *Zoriontasun*-en lehen testu-lekukotasunak 1800 ingurukoak dira (Mogel eta Añibarro) baina *dohatsutasun* konplexuagorenak ia bi mende lehenagokoak (Mattera eta EtxZib).

⁴⁴ Hemen aztertuko ez dugun gaia den arren, zilegi bekigu iradokitzea etimologiarako gehiegi be-rezi izan direla *zori* / *zoritu*-ren jatorriak (eta *zoli*-rena) eta, alderantziz, gehiegi identifikatu *zori* = *txori*-renak.

pareidoliaren batean funtsaturik.⁴⁵ Larramendiren eraginez —orain arruntzat eta guztiz ezaguntzat ditugun enparauko hainbat hitzekin gertatu bezala— XVIII. mendearen akaburantz eta, bereziki, XIX.etik aurrera haren obren eta haren zordun eta jarraitzaileen bidez bertakotu ziren *zorioneko* eta *zorion* Hegoaldean eta geroxeago hortik guxti bat hedatu lehena Iparraldean. Bertakotu ere ez nolana, aurreko hamarkadetan —zer esango milurteko bat edo bi lehenago!— pentsaezinak ziratekeen dozenaka eta are ehundaka lekukotasunen bidez —eta hainbat *edo*-egituraz horniturik— baizik.

1745 baino lehen Iparraldean ez da ez bataren ez bestearen lekukotasun ziuurrik edo eraginkorrik ondoko tradizioari begira, Xurioren (1720) *zorion* mordoxkaz landa eta ez segururik ez zalantzazkorik Hegoaldean *HH* eta Larramendiren testuetakoak baino lehen. *Zorioneko zori hon* → *zori honean* → *zori honeko* > *zorioneko* bilakabidetik eta *zorion* horren atzerantzko eraketaz sortuak direla ikusi dugu, lehena (gehienez ere) 1650-1700 bitartean eta bestea mende erdi beranduago, oraindik 1750-1800 arte bederen *zori hun* eta *zorionean* —‘aldi, ordu on’ ez ‘zorion, ditxa’— zaharragoek irauten zutelarik Zuberoan eta Bizkaian gutxienez.

1729an euskaldun gehienek ez zekiten —askok ezta geroago ere— *zorion* ‘fortuna’, ‘felizitate’ edo ‘ditxa’ zenik —eta bai oraindik *zori (h)on* ‘une, ordu, aldi, momentu on’— eta Larramendik bigarren adiera zaharrago hau gogoratzen die itzaltzeaz zelakoan. Gero, ordea, —Baionako egotaldian lortu eta irakurri Xurioren *Imitazioanean* ikasi *zorion*-etan oinarriturik— eta horren gainean Larramendik berak sortu edo bermoldatutako *zorioneko*-ren baliagarritasunez oharturik, horien erabilera aldarrikatzen du sutsuki Hiztegian eta bere gainerako lanetan: dagoeneko 1740an Asuntzioko Sermoian, *HH*ko hainbat sarreratan eta baita ondoko urteetako bere gainerako testu labur bezain garrantzitsuetan ere.

Haatik, ez zen harritzeko XVIII. mendeko euskaldunek hitz horiek ez ezagutzea, aurreko mendeetan eta XVIII-XIXetan oraindik erabat zabaldurik ikus ditzakegun *fortuna* eta *ditxa* jator askoen bidez eman baitzituen Larramendik berak ere bere usadio arruntenean *HH*ko sarreretako ohiko lehen kokaguneetako ordainetan; *zorion* eta *zorioneko* euskarak ahal zuen poesiarako (*Artean*) eta *HH*aren hitzaurreko § 26n definitu hiztegi bereziturako —erlijiozko lexikorako ere bai, alegia—, *HH*ko sarrera askotako akabuko tokietan (ez ahantz: Lk irakurri, asmatu edo moldatuentzat paratu kokalekuan) ematen zituelarik.

Zorion eta *zorioneko* bi hitz kronologia minimo batek ondoko urratsak behar ditu bildu:

- 1.a. *Zori (h)on* ‘une, aldi on’, eta geroago —baina noizdanik ez dakigularik— halaber ‘zorte on’-en agerraldiak (*zori hun* hasperenarekin oraindik Zn) lehen testuetatik gutxienez 1800 arte (Mogel, etab.) edo are geroago (Arxu tartean), oraindik oso bizirik agertzen dira Larramendiren 1729ko gramatikan, eta errepikatzen *HH*an eta euskara-gaztelania hiztegiatan.
- 1.b. *Dobeldohain* eta *dohatsu* (1745 arte 3. hau soilik Iparraldean) lehen testuetarik eta are zenbait mende lehenagotik.
2. Etxeberri Ziburukoaren zalantzazkoren baten ondotik (*zori onez* ManDeb eta *Elizaran*) Xurioren (1720) *zorion* ‘felizitate’-ren adibide seguru mordoxka.

⁴⁵ Pareidoliaz, cf. Manterola (2023) eta lehenago Twitter *Etimologiak Sarean* (@etimotxioak), 2022/11/16-17.

3. *Zori on* ‘zorte on’ *Arte*-an eta *HHn*; ikus § 4.2 akabuko adibideak.
4. Horren gainean eraturako *zorioneko*-ren (< *zori(h)onean*) Harizmendiren ageraldi bakarra Larramendi baino lehen (gainera, oso zalantzazkoa berau eta, nolana ere, Lrentzat ezezaguna; cf. § 7.1). Aldiz, *bienabenturatu* zein *ditxosoren* dozenaka eta ehundaka adibide 1745 aitzin zein gibel, literatura euskara jasoenetik landara.
- 5.a. Hegoaldeko lehen *zorion* ‘felizitate’, Lren ASn (1740): sermoi labur berean 15 aldiz *ditxa eta zorion* eta behin *zorion* soila, hitz eta adiera berri hori zabalteko grinaren adierazle nabarmena (ik. 35. oh. ondoko egileentzat).
- 5.b. Hegoaldeko lehen *dohatsu*-ak 1745 ondoren (ik. § 2.2).
6. *HH zorion* ‘ditxa, felizitate’: ikus § 5.2ko *HHko* sarrerak eta § 5.3 eta § 5.5eko Larramendiren testuetako adibideak (§ 5.5en baita *zorion*-en hainbat eratorri, oso erabilera urrikoak gehienak).
7. *HH zorioneko*: ikus § 3 eta behean §§ 7.1-2.
8. *Zorioneko* 1745-1850 bitartean ehundaka lekukotzen da (ik. § 2.1): XVIII. mendearen bigarren zatian 428 *zorioneko* Euskal Klasikoen Corpusean (4/5etik Mendiburuk, Kardaberatzek eta J. A. Mogelek); horiez gainera 210 XIX.aren lehen zatian (ia erdiak Añibarrenak eta Zabalarenak).

Larramendiren lan erraldoiaren eraginez —zehazki haren Ipar eta Hegoaldearen arteko zubi-lan zabal, baina ezezagunegian oinarrituaz—,⁴⁶ orain arruntzat eta guztiz ezaguntzat ditugun enparauko hainbat hitzekin gertatu bezala, XVIII. mendearen akaburantz eta, bereziki, XIX.etik aurrera Larramendiren obren eta haren zordunen bidez bertakotuko da *zorioneko* Hegoaldean (baita *zorion* gehi *dohatsu* ere) eta —geroago eta askoz urriago— Iparraldean.⁴⁷ Bertakotu ere ez nolana ere, aurreko hamarkadetan pentsaezinak ziratekeen dozenaka eta are ehundaka lekukotasunen bidez baizik —zer esango milurteko bat edo bi lehenagoko egoerez! Alabaina, lehen testuetarik aurkitzen genituen *zorion* eta *zorioneko* baino mailegu zaharragoak soilik euskara idatzi jasoenetik baztertu izan dira ez, ordea, bazterreko tradizio idatzietatik edo ahozkotik.

7. Hiru isats *zorioneko*-z

7.1. 1838ko *MarIl* eta Harizmendi (1658) berriro

Goian (§ 2) *OEhk* Iparraldeko lehen lekukotasuntzat eman bien artean Harizmendirengandik (1658) 1838ko *MarIl*-era (*Andredena Mariaren Ilhabethea*-ra, alegia), ia bi mendetako jauzi aski harrigarria genekusan. Are harrigarriago edo susmagarriagoa ondoko Duvoisin eta Miranderenak, gutxienez, Larramendiren edo haren ondokoen zordun garbi ditugula jakinik.

⁴⁶ Lehendik ezagun diren *adin* eta besteren landara, Lakarra (2023a, prestatzen-a) lanetan hainbat froga eta adibide bildu ditut Larramendik Iparraldeko tradiziotik Hegoaldekoa irauli hitzez; hori, gainera, bi sermoi laburretatik abiatuak eta bata (*Asuntziokoa*, 1740) gainera —ezagun zahar dugun 1737ko Azkoitikoaren kasuan bezala— *HH* argitaratu baino lehenagoko testu baten lekukotasunaz baliaturik. Cf. 34. oharrean horietan —berariazko borondate nabarmen batez— errepikatu hitzez. Lren turriez ikus Urgellen lanak eta lehenago Mitxelena (1970 [1965]).

⁴⁷ Hegoalde / Iparralde banaketa honek ez du aldezen, bidenabar, *zorioneko*-ren EBZ baino zaharrago kronologiarik Irulegikoarentzat; are gutxiago § 7.2ko oharrek.

Nago harridura eta susmoak ezabatuko liratekeela *MarIl* hori ez balegokio 1838ko aipatutako Iparraldeko liburuari, Hegoaldeko (*Ur*) *MarIl* delakoari baizik, hots, 1850eko aita Uriarteren *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*-ri. Honenbestez, *OEH*koen akats ulergarri bezain nahasgarri gerta zatekeen, are egiantzekoago 1838ko *MarIl* aipatu bai, baina ez baita haren lekukotasunik ematen eta, aldiz, bai Uriarteren *Zorijonekua*, *Jaungoikuaren dejari laster erantzuten deusana MarIl* 89. Gainera, *EK*Cren arabera 109 *zorioneko* eta beste 43 *zorijoneku*-⁴⁸ ditu Uriartek, itxaron bezala § 2ko taularen eta *OEH*k berak aipatu bizkaitar (berantiarren) erabilera ugariaren arabera.

Halere, nire susmo horiek ez ziren funtsatuak: badaezpada, 1838ko Iparraldeko *MarIla* jaitsi eta astiro miatu dudalarik, 5 *orhoitzapen zorionezco Aita Sanduac*, 96 *bizitzearen portu zori onezcora*, 116 *pribilio zori onezco bat da*, 127 *araz nezan zeruan zori onezco mendeen mendetan*, 139 *zori onezco oren haren ondotic*, 271 *Hunen zeruco lorian sartzeco egun zori onezcoa*; 290 *Ez da baratzen hejen laguntzetik eternitate zori onezcoan sar arazi dituzken artean aurkitu ditut*, baina baita, urriago, 95 *egiten dautzut ene agurra zure sortze zori onecoaren mementoan*, 226 *Gozatu baitzen Birjina Sainduac ardietsi zioen zori oneco descantsuaz*, 309 *Eta presenta zozu zure Semeari eternitate zori onecoan ere*.

Kontuan izanik ez dela xix. mendeko lehen zatiko enparauko Iparraldeko lekukotasunik eta 2.ean ere soilik Duvoisin larramendizalearen eta Lapeireren bakan bat, litekeena da *MarIl*-ekoek ere azalpen berbera izatea —Hegoaldekoei mailegutan hartuak, alegia—; erantsi bekio honi beheragoko atalean de Rijkkek *zorioneko / zorionezko-z* dioena.

Honenbestez, —ustezko Harizmendiren salbuespen bakarrarekin— Iparraldean ere ez genuke *zorioneko*-rik, Larramendi eta haren Hegoaldeko jarraitzaileen zordunetarik hartuak XIXan eta XXan agertu bitartean.

Baina, benetakoa ote behin eta berriro aipatu salbuespenezko xvii. mendeko lekukotasun hori? Ala ezta hori ere? Izan ere, Harizmendiren testua hurbilagotik miatuaz zera dakusagu:

- Gozatuco duçu *çoriz*, / ceure colera mina (= 117);
- Eta *çoriz* ençun ninçan / *çoriz* nenguion esca (= 125);
- Iaincoaren faborea, / Bethi dela gurequin. / Eta gaitçan gu cerura / *çoriz* alcha berequin (= 182)
- Demon soldadu valenta, / Bere dorretan franco: / *Çori onez* baquerequin, / Exaiei gogorceco (129, 154);
- Iaincoaren beldurra *çori ona* da (142);
- Ama *çori onecoa*, / Bai Virjina chahua : / Eguiozu semeari : / Gure alde oihua (163-164);

«Tal vez, por suerte» itzultzen du *OEH*k *zoriz*, Harizmendiren forma horren hiru adibideok oro sarreran bilduaz. Nire ustez, itzulpen bertsuak legozkieke —‘aldi, halabehar, zorte on, fortuna’, ‘aldi, halabehar, zorte, fortuna onekoa’ adiera zaharrak— gainerako kasuei ere, eta ez ‘ditxa’, ‘ditxoso’. Horrela balitz, ez litzateke ez *zorioneko* ‘ditxoso, zoriontsu’-ren adibide garbirik (ez —markatutako Xuriorren salbuespenarekin— *zorion*-en ‘ditxa’-rik) Larramendi baino lehen eta, nolnahi ere, egile horri zorko litzaioke 1745z geroz *zorioneko*-k (eta *zorion*-ek) izandako biderkatze erraldoia (ik. 53. oh. akabuan).

⁴⁸ 236 *zorion*- (*zorioneko*, *zoriontasun* eta gainerakoak barne), 106 *zorijon*- tarteko.

7.2. *Zorioneko eta -ko*

De Rijkek dioskunez (2008: 90), euskara estandar modernoan *-ko* atzizkiak ez du *-e*-epentesirik⁴⁹ hartzen eta hortik lekukotzen diren hainbat aldaketa kontsonantez amaitu enborretan: *bezeroentzako* < *bezeroentzat* + *-ko*, *etsaiarekiko* < *etsaiarekin* + *-ko*, *matematikarantzko* < *matematikarantz* + *-ko*, etab.

De Rijkentzat (lehenago Goenaga 2003 eta Lhandeganaino eraman litekeen tradizioa-ekin batean),⁵⁰ gainerako *-ko* asko bezala, «inesibo ezabaketa» baten ondorio litzateke:

The analysis of adnominals presents an interesting complication because certain case endings appear to be dispensable if they are followed by the linking morpheme *-ko*. This phenomenon will be referred to as *Postposition Deletion*, although it should be noted that what is actually deleted is not lexical postpositions but rather morphological inflections on certain postpositional phrases. Only five grammatical cases participate in this process: the inessive, elative, and allative of the locative system, and the sociative and instrumental of the basic system. We must deal with these cases one by one (2008: 91)

5.2.1 Inessive Deletion. By far the most common application of Postposition Deletion involves the inessive. This deletion is strictly obligatory in all present-day varieties of Basque, except Souletin (2008: 91)

Adnominal forms of location nouns are specially frequent. They can occur either with a preceding complement: *etxe aurreko pagoa* ‘the beech tree in front of the house’; or without: *aurreko pagoa* ‘the beech tree in front’. Their underlying case form is nearly always inessive. (de Rijk 2008: 92)

Honenbestez *-ean* inesiboak determinatzailea suposatzen badu —*(h)e-ha-n eta ez *-gan bere garaian Jacobsenek eta De Rijk berak (baina ez Mitxelena eta Manterolak proposatu bezala)— Irulegin K.a.-ko lehen mendean ezin zitekeen ***zorioneko*-rik izan, horrek eskatzen zukeen *zorionean* oraindik ez zelako sortua edo eratu ere; zehatzago, ez zelako sortu oraindik horrek oinarrian suposatzen duen **zorion-* / (h)a —ezta *zorion* mugagabea bera ere, noski, testuan ikusi dugunez—, baina gehienez (ez segurantz osoz) **zori hon* ‘aldi on, ordu on’ oraindik 1700 edo 1800 bat urte beranduago (noizdanik?) gorde bezala.⁵¹ Hortik *zori onean* eta *zori onez* ‘en buena hora’ XVIII. mendera arte —*zorioneko* bakar exkaxaz [Harizmendi] ik. § 7.1)—, eta *zorionezko* mordoa Iparraldean Etxeberri eta Xurrioren ondoren:⁵²

We may add that the common expression *zorioneko* ‘fortunate’ (often used highly ironically: ‘deuced’) may be derived from *zorionezko* for some, especially northern,

⁴⁹ «The linking suffix *-ko* does not allow *e*-epenthesis in the standard language» (90). Estandarrean bezain garrantzitsu edo garrantzitsuago deritzogu baita akitanierazko egoerari ere: cf. *Talco / Halsco* (Gorrochategui 1984). Cf., orobat, «Es inesperada la vocal final *-u* frente al vasco general *-o*, y asombrosa la antigüedad de la formación mediante *-e-* de unión entre la palabra terminada en consonante y el sufijo *-o*» (Gorrochategui & Velaza 2023 lanaren aurreko bertsio batetik ateratako aipua).

⁵⁰ Cf. «Bidezkoena da pentsatzea *-ko* atzizkia mugatzaile osagai bati itsasten zaiola; hots, determinatzaile sintagmari (...) Bestalde, *-ko* izenlagunek jadanik beste izenlagun bat baldin badaramate (...) mugatua behar du izan sintagmak» (Goenaga 2003: 284).

⁵¹ Duela 2100 urte SORION formaz nahiz esanahiz ez dela *zorion*-en baliokide segurua argi behar luke; beste horrenbeste esan bide liteke akitanierazko SORI izenaz eta *zori*-ren edozein adiera historikoz.

⁵² Urtek (cf. Urkizu 1989)— badu *zorion* (eta *zorionezko*, baina ez *zorioneko*): cf. «*beatitas*, dohatstutásuna, oren óna, çoriona, ordu ona, prosperitatea, estatu ona, fortuna ona, ungui içatea, felicitatea»; «*beatús*, dohatssua, çorionezcoa, oren onezcoa, çorionean sorthua».

speakers and from inessive *zorionean* + *-ko* for others. Note that the Latin adjective *beati* of Lk 12:37 was rendered *zorionezkoak* by Duvoisin (1858) and *zorionekoak* by both *IB* (1980) and *EAB* (1983). (de Rijk 2008: 97)⁵³

7.3. Noiz lexikalizatu ziren *zorion* eta *zorionekoren* erdarazko kideak?

Amaitu baino lehen, gogora dezagun *zorioneko* nahiz *zorion* zalantzazko edo egiantzekotasun urriko bakarraren aurretik zein ondoren dozenaka eta are ehundaka *felizitate*, *ditxa*, *fortuna*, *ditxoso*, *fortunoso*, *bienabenturatu* eta horien aldaera eta eratorriak ageri zirela Euskal Herri osoko testuetan. Argi da indar eta hedadura hori lortzeko olatu zahar eta sakonagoen eraginen emaitza baino ezin izan litezkeela eta mailegu horiek euskal lexikoaren diakronian *zorion* eta *zorioneko* arras be-rankorrek baino erro sakonagoak dituztela: *bienabenturatu*-ren kasu ezin argiagoan ageri den bezala, bildu dituzten lekukotasun ugari itzulpenak izateari zor zaizkion erdaratikozorrez gainera, ahozko euskaran nonahi aspalditik lortu duten hedadurak dioskunez.

Zail litzateke sinisten Irulegiko K.a.-ko I. mendeko ***zorioneko* baten ondoren euskaldunek oso berandu arte, (funtsean 1745 arte), *zorion* eta *zorioneko*⁵⁴ ez erabil-tzea eta gero, halabeharrez, erruz data horren ondoren. Are zailago bide dugu pentsa-tzea 1745 arte bakarrik eta ugari —eta ondoren ere erruz literatur euskara garatu edo errotuegi ez zen eremuetan— agertzen zaizkigun *ditxa*, *felizitate*, *ditxoso*, *fortunoso*, *bienabenturatu*, *enhorabuena*, *fortuna*, *dohatsu*... *zorion* eta *zorioneko* baino geroago sortuak —alegia, sartuak eta hedatuak— izatea. Hots, *zorion* eta *zorioneko* K.a-ko I. menderako eta beste horiek *erdaraz* sortu gero (hainbat eta hainbat mende ge-roago), are geroago euskal testuez jabetu eta *zorion* eta *zorioneko* ezabatu ... eta gero XVIII. menderantz «berriro» sortu eta ikaragarritzko hedadura hauek izatea...!!!

Sasi-azalpen hori baino funtsatuagoa eskuratzeko *CORDEri* so bat ematea hoberena:

Felicidad	Feliz	Dicha	Dichoso
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 17 kasu	1200-1300: 1124 kasu	1200-1300: 0 kasu
1300-1400: 1 kasu	1300-1400: 5 kasu	1300-1400: 8460 kasu	1300-1400: 2 kasu
1400-1500: 43 kasu	1400-1500: 1 kasu	1400-1500: 51333 kasu	1400-1500: 120 kasu
1500-1600: 1945 kasu	1500-1600: 358 kasu	1500-1600: 47446 kasu	1500-1600: 1265 kasu
1600-1700: 1010 kasu	1600-1700: 1509 kasu	1600-1700: 16722 kasu	1600-1700: 1784 kasu

⁵³ Gogora bedi Duvoisinek eta —orain seguruago baieztatu dezakegun bezala—1838ko *MarII*-ek, bietarik dituztela, *-zko* erakoak beren dialektoari dagozkienak eta *-ko* sailekoak Hegoaldeko Larramendi ondoko tradizioetik ikasiak. Kopuruek ere interes argia dute: Duvoisinek 20 *zorionezko* eta 6 *zorioneko*, 1838ko *MarII*-ek 7 *zorionezko* eta 3 *zorioneko*. Gogora § 5.4ko Xurrioren *zorionezko* urriak (ez du *zorioneko*-ren alerik eta Lk ezin hortik hartu, beraz) eta erants bedi Harizmendik ez dakarrela *zorionezko* bakar bat ere, seguruenik oraindik ez zuelako *zorion*-ik eta bai, aldiz, hainbat *zori on-* eta *zori oneko* (ez ditxosozko *zorioneko* bakarra).

⁵⁴ Lan honen hasierako oharrean Manterola eta Mounole (2023) eta Manterola (2023) nirearen osagarri bikain suertatzen direla markatu dut. Besteak beste, beraiek ikertu dute, K.a.ko I. mendeko ***zorion* eta ***zorioneko*-k zer garapen fonetiko izan zezaketen ondoko garaian (***zoriori*, ***zorioneko*) antzeko egiturako hitzek (*Lekuine*, *eskuin*, *aitona*) izandakoarekiko erkaketaz baliaturik.

Fortunoso	Afortunado	Bienaventurado	Dichosamente
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 3 kasu	1200-1300: 39 kasu	1200-1300: 0 kasu
1300-1400: 0 kasu	1300-1400: 11 kasu	1300-1400: 119 kasu	1300-1400: 0 kasu
1400-1500: 0 kasu	1400-1500: 88 kasu	1400-1500: 566 kasu	1400-1500: 1 kasu
1500-1600: 21 kasu	1500-1600: 154 kasu	1500-1600: 1186 kasu	1500-1600: 51 kasu
1600-1700: 5 kasu	1600-1700: 154 kasu	1600-1700: 257 kasu	1600-1700: 153 kasu

Enhorabuena	Fortuna	Fortunado
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 608 kasu	1200-1300: 129 kasu
1300-1400: 0 kasu	1300-1400: 545 kasu	1300-1400: 11 kasu
1400-1500: 5 kasu	1400-1500: 2860 kasu	1400-1500: 75 kasu
1500-1600: 123 kasu	1500-1600: 5860 kasu	1500-1600: 113 kasu
1600-1700: 170 kasu	1600-1700: 5365 kasu	1600-1700: 18 kasu

Taula hauen arabera *feliz*, *afortunado*, *bienaventurado*, *dicha*, *fortuna* eta *fortunado* 1200 baino lehen sortuak ziren; ordea, ez *felicidad*, *dichoso*, *fortunoso*, *enhorabuena* eta *dichosamente*. Baina, batez ere, mende batetik hurrengora izandako gorakadak hitz bakoitzaren lexikalizazio eta hedadurarekin erlazionatzen baditugu, orduan 1400-1500 bitartean —gehienetan batez ere mende horren bigarren zatian— gertatzen da hori *felicidad* (kasu 1 > 43 kasu), *dichoso* (2 > 120), *afortunado* (11 > 94), *bienaventurado* (119 > 566), *dicha* (8460 > 51333), *fortuna* (545 > 2860) eta *fortunado*-rekin (11 > 75); are beranduago oraindik (1500-1600 artean) *feliz* (1 > 358), *fortunoso* (0 > 27), *enhorabuena* (5 > 136) eta *dichosamente*-rekin (1 > 51).

Beraz, § 2.1en OEHTik jasorik bildu ditugun *dixoso*, *fortunoso* eta *bienaventuratu*-ren ordainak (gure *zorioneko*-ren baliokideak [eta baita *fortunatu* ere]) miatzen baditugu, 1400 edo are 1500 baino geroago garatuak, hedatuak edo arrunt bilakatuak dira eta, ezinbestean, jatorrizko erdararen hedatuak behar zuten izan euskararen hedatuko baziren.⁵⁵ Bestalde L aitzin aipatutako guztien aurrean Harizmendiren *zorioneko* bakar bezain zalantzarria dugula kontuan izanik, ez hori, ez *zorion* nekez har genitzake 1700 edo 1800 urte lehenago Irulegin dagoeneko eratua zatekeen ezeren jarraipen gisa.⁵⁶ Are bateraezinago edo sinistezinago genuke 1745etik 1850 bitartean zerotik —edo, hoberenean ere, ia zerotik— 600 adibidetatik gora halabehar hutsez igarotzea, ... Larramendiren eragin asmotsuaren bidez ez izatera, noski.

⁵⁵ Ez da ahaztekoa ere *dobatsu* (§ 2.2) Leizarragaz geroz —eta, seguruenik, menderen bat lehenago ere— Iparraldean (eta 1745 ondoren Hegoaldean) lekukotasun erraldoia duena.

⁵⁶ Patxi Salaberrik diostenez (2023/12/29ko mezua) «Minondok 1800 inguruan *zorioneko* ibiltzen dik, baina gaitzesteko 'ditsosozko' adierarekin» (ikus Salaberri, Zubiri & Salaberri 2021: 381ko lekukotasun eta iruzkinak eta cf. §7.2n De Rijken antzeko lekukotasuna). Ez nau harritzen, oker ez banaiz egun Arratzuko eta inguruetao usadioan ere gehienbat erabilera horretan baita hitza ezagun. Horren kronologiari dagokionez, ez bide da halabeharra DAut-ek (cf. s.u. *dichoso*-3), ia mende bat lehenago dakarren azalpena ere: «Se usa en nuestro castellano con cierto tonillo y así tiene una significación sumamente expresiva, según la materia y el sujeto a que se aplica, la qual no es fácil explicar con otro término, y algunas veces suele ser ironía». Cf., aldiz, 42. oh. Pomierren «dichoso, *dichosoa*» sarrera soilaz eta haren hiztegian aurkitzen ez diren *doatsu*, *doainti*, *zorioneko* eta *zorion-ez*.

Bibliografia

- Agirre-Mauleon, Juantxo. (arg.). 2022. *IRULEGI. La mano de Irulegi, un testimonio epigráfico del siglo I a.C. en el valle de Aranguren*. Donostia-San Sebastián: Sociedad de Estudios Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Altuna, Patxi. (arg.). 1967. Larramendi' ren iztegi berria. *Euskera* (2. aldia) 12. 139-300.
- Altuna, Patxi. (arg.). 1982. *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 2 lib. Bilbo: Euskaltzaindia & Ed. Mensajero.
- Altuna, Patxi & Joseba A. Lakarra, (arg.). 1990. *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Donostia: Andoaingo Udala et al.
- Aristizabal, Unai 2023. Añibarroren *Cristau Doctrina* eta nafarrera idatziaren bilakabidea. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lana.
- CORDE = Real Academia Española. *Corpus diacrónico del español (CORDE) en línea*. <http://corpus.rae.es/cordenet.html> (2023/10/27).
- EKC = Euskara Institutua. *Euskal klasikoan corpusa*. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://www.ehu.eus/ehg/kcl/> (2023/10/27).
- Goenaga, Patxi. 2003. *-en* eta *-ko* atzizkiez berriro. In Jesus Mari Makatzaga & Beñat Oihartzabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian I (Iker 14)*, 279-303. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gómez, Ricardo & Josu Zulaika (arg.). 2020. *El Vocabulario Pomier. Estudio y edición de un diccionario manuscrito anónimo euskara-español*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gorrochategui, Joaquín. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Leioa: UPV/EHU.
- Gorrochategui, Joaquín & Javier Velaza. 2023. Aproximación interdisciplinar a la interpretación de la Mano de Irulegui. Edición y comentarios epigráficos y lingüísticos. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 491-502. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Gorrotxategi, Joakin, Iván Igartua, Joseba A. Lakarra (arg.), 2018. *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- de Hoz, Javier. 2011. *Historia lingüística de la Península Ibérica en la Antigüedad: II. El mundo ibérico prerromano y la indoeuropeización*. Madril: CSIC.
- Iriarte, Ibai. 2022. *Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia.
- Irure, Leyre. 2023. Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren *Imitacionea*-ren aleak XVIII. mendean. Gasteiz: UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana.
- Kaltzakorta, Jabier. 2018. San Agustín Eguneko Sermoiaren edizio kritikoa. *Sancho El Sabio (Extra 2)*. 39-72. <https://doi.org/10.55698/ss.v0i0.185>.
- Lakarra, Joseba A. 1985a. Larramendiren hiztegegintzaren inguruan. *ASJU* 19. 9-50.
- Lakarra, Joseba A. 1985b. Literatur gipuzkerantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737). *ASJU* 19. 235-281.
- Lakarra, Joseba A. 1986. Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharra. *ASJU* 20. 533-594.
- Lakarra, Joseba A. 1987. Burgosko Dotrina (1747): II. Faksimilea eta hiztegia. *ASJU* 21. 277-317.
- Lakarra, Joseba A. 1992. Larramendirekin euskal hiztegegintzaren historiaz. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. III. Mendurrena*, 279-312. Andoain: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, GFA & Andoaingo Udala.

- Lakarra, Joseba A. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31. 447-536.
- Lakarra, J. A. 2013. Gramática histórica vasca o vasco-iberismo. *Palaeohispanica* 13 (= *Acta Palaeohispanica* 11). 567-592.
- Lakarra, Joseba A. 2015. Hiru hasperen haboro. In María José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia H. Knörr irakasleari (1947-2008)*, 349-378. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2018. Historiaurrea. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritz: 23-229.
- Lakarra, Joseba A. 2022a. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bitor(tu)*: filologia ala hil. In Iván Igartua & Jesús A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces. Escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Leioa: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2022b. *Jatorri* eta enparauak: Gogoetak Pomier, Larramendi eta hiztegi-gintzaren historia eta filologiaren. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Lakarra, Joseba A. 2023a. Asuntzioko Sermoi egile-, toki- eta urtegabea: Larramendiren testu berri ezezaguna (Loiola 1740/08/14). *Euskera* 68(1). 111-220.
- Lakarra, Joseba A. 2023b. *Zorioneko y zorion*: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 597-615. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Lakarra, Joseba A. Prestatzen-a. Kontzepzioko Sermoi anonimoa (1772): Larramendiren original baten kopia? UPV/EHUko eskuizkribua.
- Lakarra, Joseba A. Prestatzen-b. Sobre la reconstrucción de otro NR: Pseudoepéntesis, protolocativo y preverbio. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Larramendi, Manuel de. 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio José Villagordo Alcaraz (Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979).
- Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, vascuence y latín*, 2 lib. Donostia: Bartolomé Riesgo. (Berrargit. faksim. Donostia: Txertoa, 1984.)
- Manterola, Julen. 2023. *Mugurutza, Gorrotxategi* eta beste etimologia zenbait: *eskuinak ez dakar zorionik*. Liburu honetan argitaratua.
- Manterola, Julen & Céline Mounole. 2023. An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the Irulegi Hand. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 583-595. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Mitxelena, Koldo. 1970 [1965]. *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbo.
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (12. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Pagola, Inés. 1984. Neologismos en los Juegos Florales. *ASJU* 18(1). 53-159.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque, a progressive grammar*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri, 2021, *Jose Ramon Minondo Goizuetarraren gutunak. Olaberría (Oiartzun). 1792-1807*. Iker 42, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Sarasola, Ibon. 1986. Larramendiren eraginaz eta. *ASJU* 20(1). 203-215.
- Telletxea, Jose I. 1975. Dos textos eusquéricos inéditos del P. Larramendi. *ASJU* 9. 179-184.

- Urgell, Blanca. 2000. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Urgell, Blanca. 2001. Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian. *ASJU* 35. 107-183.
- Urgell, Blanca. 2002. *Hiztegi Hirukoitzaren* kanpoko eta barruko historiaz. In Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga & Joseba A. Lakarra (arg.), «*Erramu Boneta*»: *Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (*ASJUren Gehigarria* 44), 629-649. Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2003. Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): Eratorbideen analisisa. *ASJU* 37(1). 203-260.
- Urgell, Blanca. 2005. Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat. *Lapurdum* 19. 1-39.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urgell, Blanca. 2023. 1720ko *Imitazionearen* iturriak: lehen hurbilketa. Liburu honetan argitaratua.
- Urkizu, Patri. 1989. *Pierre d'Urteren Hiztegia (Londres 1715)*, 2 lib. Donostia: EUTG-Mundaiz.
- Zuloaga, Eneko & Borja Ariztimuño. 2023. Sobre la lengua de la Mano de Irulegi: apuntes y conjeturas. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoe-tak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra)* (*FLV* 136ko atal berezia), 565-581. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

